

Weimarko Errepublikako zuzenbidearen eta Sobietar Batasuneko zuzenbidearen arteko alderaketa bat

Egilea: Aimar Aiestaran Goikoetxea

Zuzendaria: Joxe Ramon Bengoetxea Caballero

AURKIBIDEA

.....	0
0.Sarrera	4
1.Weimarko Errepublikaren eta Sobietar Batasuneko sorrerako testuingurua	5
1.1. Weimarko Errepublikaren sorrera testuingurua	5
1.1.1. Lehen mundu gerra	5
1.1.2. Iraultza	6
1.1.3. Versaillesko bake akordioa	10
1.1.4. Prozesu eratzaileria	11
1.2. Sobietar Batasunaren sorrera testuingurua.....	13
1.2.1. Aurrekari historikoak.....	13
1.2.2. Otsaileko iraultza	16
1.2.3. Urriko iraultza	19
1.3.3. Prozesu eratzaileria testuingurua: Gerra Zibila eta alderdi bakarra	22
2. Weimarko errepublikako eta Sobietar Batasuneko Zuzenbidearen alderaketa	24
2.1. Boterearen antolaketa	24
2.2. Funtsezko eskubideak.....	35
2.3. Lurraldearen antolaketa	39
3. Ondorioak	42

0.Sarrera

Weimarko Errepublika eta Sobietar Batasuna historiaren bilakaeran eragin handia izan zuten momentu historikoak izan ziren. Bi momentu historiko hauek historia garaikideko inflexio puntu garrantzitsutzat har genitzake. Weimarko Errepublika 1918 eta 1933 urteen arteko Alemaniako garai historikoari deitzen zaio eta izen hau Alemaniako Weimar hiritik dator, bertan egin baitziren 1919ko Konstituzioa garatu zuen asanblada eratzaillearen bilerak. Weimarko Errepublika, estatu demokratiko eta sozialaren kontzeptuaren abiapuntutzat hartzen dute askok, Weimarko konstituzioak herritarrei eskubide eta askatasun indibidualak aitortzeaz gain eskubide sozial eta kolektiboak aitortzen aitzindarietako bat izan baitzen. Sobietar Batasunari dagokionez, estatu sozialista eraikitzeke inoiz izandako saiakerarik garrantzitsuena izan zen eta mundu guztian zehar izan zuen oihartzuna. Sobietar Batasunean, proletarioaren diktadura gauzatzeko bitarteko bezala langileen antolakuntzatik eratutako organo batzuetan oinarritu zuten Estatuaren antolaketa, hots, Sobiet-etan.

Weimarko Errepublika eta Sobietar Batasunaren sorrera garai historiko berean kokatzen dira eta garai hartako bi proposamen konstituzional ezberdin ordezkatzeko dituzte. Batak, estatu liberal, demokratiko eta soziala ordezkatzeko du eta, besteak, estatu sozialista ordezkatzeko du. Bi estatu hauek Lehen Mundu Gerraren testuinguruan sortu ziren eta biek gatazka belikoan parte hartze aktiboa izan zuten. Gainera, batak bestearekiko eragina izan zuen. Izan ere, Sobietar Batasunean mundu mailako iraultza sozialista gauzatzera bidean, Alemanian iraultza emateko zain zeuden bitartean, Alemanian Sobietar Batasunean emandako iraultza Alemaniara hedatuko zenaren beldur ziren.

Hau esanda, lan honen bitartez garai historiko berean sortutako bi estatu ezberdinen esperientziak aztertuz, estatu horien ezaugarrien izate arrazoia eta jatorria zein den argitzen saiatuko naiz. Hau da, estatu hauek hartu zuten norabide konstituzionalaren zergatia eta proposamen konstituzional bakoitzaren ezaugarriak argitzea izango da lan honen asmo nagusia.

Bestalde, bai Weimarko Errepublikak eta bai Sobietar Batasunak beraien estatu konstituzionalak errealitatean ezartzeko izan zituzten zailtasunak ikusirik, konstituzioek errealitatea arautzeko dituzten zailtasun horien arrazoia bilatzen ahaleginduko naiz.

Horretarako, lehenik eta behin Weimarko Errepublika eta Sobietar Batasunaren sorrerako testuingurua aztertuko dut, estatu hauen sorreran garrantzitsuak izan ziren gertaerak ikertuz. Ondoren, bi estatuetakozuzenbide konstituzionalaren arteko alderaketa egongo dut. Alderaketa gauzatzeko testu konstituzionaletatik abiatuko naiz, hots, 1919ko Weimarko konstituzioko xedapenak eta 1918ko Errusiako Sobieten Errepublika Federaleko xedapenak aztertuko ditut. Nahiz eta, Sobietar Batasunaren historian zehar testu konstituzional gehiago egon, ikerketa 1918ko Konstituzioan zentratuko dut Weimarko konstituzioko garai berean kokatzen den konstituzioa delako eta Sobietar Batasuneko esperientzia konstituzional osoa aztertzeak ikerketa lan sakonago eta luzeago bat eskatzen duelako. Hala ere, Sobietar Batasunaren lurralde antolamendua aztertzeke 1924ko konstituzioa ere baliatuko dut, hau izan baitzen estatu ezberdinek eratutako federazioaren lehen konstituzioa.

Konstituzioetako xedapenak aztertu ondoren garaiko eta gaur egungo jurista eta adituen iruzkin eta lanak aztertuz xedapen hauen arrazoi teoriko eta praktikoa zein izan zen ikertuko dut. Azkenik, konstituzioek errealitatean izan zituzten zailtasunak zein izan ziren eta zailtasun hauek zein ondorio izan zituzten argitzen saiatuko naiz.

1. Weimarko Errepublikaren eta Sobietar Batasuneko sorrerako testuingurua

1.1. Weimarko Errepublikaren sorrera testuingurua

1.1.1. Lehen mundu gerra

Weimarko Errepublikaren sorrerak Lehen Mundu Gerraren amaierarekin bat egiten du eta honek eragina izan zuen errerepublikaren eratze prozesuan. 1914 eta 1919 urteen artean jazo zen Gerra Handiak Europa osoan izan zuen eragina, baina Alemaniak Entente hirukoitzaren aurka gerra galdu izanak bereziki asaldatu zuen Alemaniako egoera. Gerraren eraginez, bi milioi inguru Alemaniar hil ziren eta lau milioi berrehun mila inguru zauritu ziren.¹ Gainera, Alemaniaren aberastasunak izugarritzko beherakada jasan zuen gerraren eraginez. Ondorioz, langabezia tasak oso altuak ziren eta pobrezia

¹ Weitz, E. D. and Weitz, E. D. (2009) La Alemania de Weimar: presagio y tragedia. 1A. ed. en español edn. Madrid: Turner (Colección Noema), p.20.

orokortu baten testuinguruan, oso zaila zen jarduera produktibo egoki bat garatu ahal izateko konfiantza eta lasaitasunean oinarritutako testuinguru bat ezartzea. Halaber, kontuan izan behar da Weimarko Errepublikaren lehen urteetan Alemania kolpatu zuen hiperinflazioa.²

Gerrak eragin zituen giza galera eta galera material eta ekonomikoaz gain, azpimarratzekoa da Lehen Mundu Gerrak Alemaniako gizartean eta politikan izan zuen eragina. Lau urteetako heriotza, zauritu, elikagai falta eta lan karga eskergaren eraginez gizartean asaldura nagusi zen.³

Lehen Mundu Gerraren azken hilabeteetan, Alemania gerra galtzen ari zela ikusita, agintari politikoek zenbait mugimendu egiteko beharra ikusi zuten. 1918ko uztailan, Armadaren Estatu Goreneko ordezkari nagusiek, Paul von Hindenburg mariskalak eta Eric Ludendorff generalak, gerra galtzear zirela ikusita, Kaiserraren boterea mugatu eta, erregimen parlamentario bat osatzeko helburuz, Reichtag-aren funtzioak areagotzeko zenbait ekimen garatu zituzten Abuztuan eta Urrian zehar.⁴ Mugimendu hauen bitartez, Estatu Batuekin bakea negoziatu ahal izateko baldintza hobeak izatea lortu nahi zuten, erreforma politikorako borondatea erakutsiz. Izan ere, Hindenburg eta Ludendorffen ustez Alemaniarentzat onargarria izango zen bakea lortzeko esperantza bakarra ziren Estatu Batuak.⁵

Alemania monarkia konstituzional batera bideratzeko aldaketa politiko eta legalak egin eta Kantzilerra eta Gobernuak ordezkatu ondoren, Gobernuak Estatu Batuekin lehen harremanak egin zituen. Hala ere, bake akordioa lortzeko lehen saiakera hauek ez zituzten esperotako emaitzak eman. Egoera politiko korapilatsu horretan eta krisi ekonomiko eta sozial bete betean 1918ko urriaren 29an Kielgo itsas portuan elkartu ziren marinelek Alemaniako inperioa erorarazi zuen iraultza piztu zuten.⁶

1.1.2. Iraultza

Arestian aipatu bezala, Kielgo portuko marinelek izan ziren iraultza piztu zutenak. Portu honetako marinelek gerrara itsasoratzeke agindua jaso zuten, baina

² Ibid., p.12.

³ Ibid., p.28.

⁴ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales). 31.

⁵ Weitz, E. D. and Weitz, E. D. (2009) La Alemania de Weimar: presagio y tragedia. 1A. ed. en español edn. Madrid: Turner (Colección Noema), p.27.

⁶ Ibid., p.29.

Alemaniantzat gerrak izan behar zuten norabidea argi ikusten zen testuinguru horrek, marinela desobeditu eta matxinatzea ekarri zuen.⁷

Hasiera batean, marinelek beraien baldintzen inguruko eskariak egin zituzten baina eskari hauek geroz eta eduki politiko nabariagoa bereganatuz joan ziren, gerraren amaiera eta Kaiser-aren abdikazioa eskatzeraino.⁸ Gainera, marinela iraultzan funtsezkoak izan ziren organoen eratzailak izan ziren, hots, langile eta soldaduen kontseiluak. Lehen kontseilua azaroaren 3an eratu zuten eta iraultza Alemaniako lurraldean hedatu zen heinean, langile eta soldaduen kontseiluak ere hedatuz joan ziren. Langile eta soldaduen kontseilu hauek Iraultza Sobietarraren ondoren ezarri ziren Sobiet-etan inspiratuta sortu ziren.

Langile eta soldaduen kontseiluen mugimendua, mugimendu nahasi eta kaotikoa izan zen. Ikuspegi politiko hasiberri batekin, baina lurralde guztian zehar hedatuz joan zen herri demokratiako forma bat izan zen. Alemanian inoiz ikusi gabeko parte hartze politiko zabal bat eskaintzen zuen eta askotariko gaiez arduratzen zen.⁹ Kontseiluen defendatzaile askorentzat, Sobietar Batasunean emandako iraultzan inspiratuta, sozialismoa eraikitzeko bitartekoak ziren langile eta soldaduen kontseiluak.

Kiel-eko marinelek hasitako iraultza berehala hedatu zen Alemania osoan zehar. Alemaniako hiri ezberdinetan gertatu ziren matxinadak modu espontaneo batean sortu ziren, gerrarekin akituta zeuden herritarrek sufrimenduarekin amaitu nahi baitzuten.¹⁰ Egoera horretan, langile asko kalera irten ziren eta greba orokorrerako deialdiak egon ziren. Gainera, zenbait soldaduk kuartelak utzi zituzten. Mugimendu iraultzaile horretan, beraz, langile industrialek eta armadatik desmobilizatutako langileen paper garrantzitsua izan zuten. Estatuaren eta gizartearen demokratizazioa emateko presio handia egon zen, langileen Kontseiluetan oinarritutako demokrazia ezarri nahi zen eta jabetza erregimena eraldatu nahi zen, sozialismoa ezartzeko helburuz.¹¹

Testuinguru iraultzailea hedatzen ari zela ikusita eta ordena mantentzeko asmoz, azaroaren 9an Max von Baden Kantzilerrak Kaiserraren abdikazioa anuntziatu zuen eta Kantziler kargua Alderdi Sozialdemokratako Friedrich Eberti eman zion. Friedrich Ebert,

⁷ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales)., p.26.

⁸ Weitz, E. D. and Weitz, E. D. (2009) La Alemania de Weimar: presagio y tragedia. 1A. ed. en español edn. Madrid: Turner (Colección Noema). 30.

⁹ Ibid., p.30.

¹⁰ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales)., p.26.

¹¹ Kühnl Reinhard; Kühnl Reinhard. La República De Weimar: Establecimiento, Estructuras Y Destrucción De Una Democracia; Estudios Universitarios, 47; Edicions Alfons El Magnànim, Institució Valenciana D'Estudis I Investigació: Valencia, España, 1991.

Alderdi Sozialdemokratako buruzagi garrantzitsuenetakoa izan zen. XX. mendeko Alemaniako figura politiko garrantzitsuenetakoa izan zen eta Alemaniako demokraziaren aitzat jotzen da. 1913an Alemaniako Alderdi Sozialdemokratako buru izendatu zuten August Bebel-en heriotzaren ondorioz. Alemania 1914an gerran sartu zenean gerraren aurka agertu zen, nahiz eta Alemaniako Alderdi Sozialdemokratak gerraren alde egin zuen. 1925 uretan hil zen oraindik Kantziler Karguan zegoela.

Azaroaren 9an, Alderdi Sozialdemokratako beste kide batek, Philipp Scheidemanek errepublika aldarrikatu zuen eta, egun berean, Karl Liebknecht buruzagi komunistak, gerora altxamendu espartakistan eraila izan zenak, errepublika sozialista aldarrikatu zuen.

Friedrich Ebert kantziler kargura iritsi ondoren, Alemaniako alderdi sozialdemokratako (USPD) kideek eta MSPDko kideek osatutako gobernu bat eratu zuten, Herriaren Ordezkarien Kontseilua. Herriaren Ordezkarien Kontseilu honek Asanblada Nazionala eratzeko hauteskundeak deitzea adostu zuen.¹² Erabaki hau guztiz gaitzetsi zuen Liebknecht eta Luxemburg buru zituen Liga Espartakistak. Luxemburg eta Liebknecht Alemaniako politikari sozialista garrantzitsuak izan ziren eta hauek eratu zuten altxamendu espartakista gauzatu zuen Liga Espartakista. Liga Espartakista Alemaniako Alderdi Sozialdemokrataren fakzio ezkertiar bezala eratu zen, baina alderdi honek Gerraren alde egin zuenean alderdi independente bat eratu zuten. Liga Espartakistak metodo iraultzaileen alde egiten zuen prozesu parlamentarioan parte hartzearen aurrean.

1919ko urtarrilaren 5ean Espartakisten eskutik iraultza saiakera bat izan zen Berlinen. Espartakistek, Sobietar Batasunaren pausuak jarraitu eta estatu sobietarrarekin elkartutako Alemania sozialista bat eratzea bilatzen zuten. Alemania sozialista bat eraikitzen bidean Asanblada Nazionala eratzeko hauteskundeak ez deitzea, botere politikoa Langile eta soldaduen kontseiluei ematea eta Herriaren delegatuen kontseilua desagitea aldarrikatzen zuten besteak beste. Gainera, poliziaren armagabetzea eta langileen miliziaren sorrera galdatzen zuten, baita jabe handi eta ertainen landa lurren desjabetzea eta burgesia handiaren kapitalaren desjabetzea ere. Matxinada itzaltzeko, gobernu sozialdemokratak gobernuarekiko leialak ziren militarrek baliatzeaz gain, eskuin muturreko *Freikorps*-etako bi unitate ere baliatu zituen.¹³ Indar militar eta paramilitar hauen bitartez, gobernuak iraultza saiakera gogor erreprimitu zuen. Errepresio horren baitan Espartakisten buruzagi nagusiak ziren Liebknecht eta

¹² Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales)., p.28.

¹³ Ibid., p.31.

Luxemburg erail zituzten. Espartakisten altxamendua gogor erreprimitu ondoren, 1919ko urtarrilaren 19rako Asanblada Nazionala eratzeke hauteskundeak deitu zituzten.

Sozialdemokraziak iraultzaren aurrean eta Weimarko Errepublikaren sorreraren aurrean jokatu zuen paperari buruz Gustav Radbruch zuzenbidearen filosofo eta agintari sozialdemokratak honakoa ezan zuen: “*Sozialdemokraziak, estatu zaharrearantz oposizioko alderdia zena, Estatu horren aurkako oposizioko partidua zena eta beraz Estatuaren zentzuarekin loturarik ez zuena, gerra amaitu ostean Estatuko alderdi bilakatu behar izan zuen, estatu berriko arduraren erantzule kontziente*”¹⁴

Sektore historiografiko zabalaren arabera, Alemaniako klase dominatzaileek, ordena zaharraren defendatzaileak, Inperioan benetako iraultza bat gertatzea ekiditeko erantzun egin zuten. Horretarako, langileei eskubide ekonomiko eta politikoak aitortuko zizkien baina eliteek kontrolatu zezaketen estatu baten sorrerara bideratu zuten. Zentzu horretan mintzatu zen Enzo Collotti: “*Ez zen jauzi iraultzailea gauzatu, eta errepublika parlamentarioa Estatu Goren zaharraren eta Sozialdemokraziaren konpromiso zalantzagarriaren eraginez jaio zen*”¹⁵

Izan ere, klase agintariak beraien hegemonia zalantzan ikusi zuten. Hala ere, arriskua aldeni eta beraien posizioa indartzea lortu zuten. Horretarako hiru elementu baliatu zituzten: Lehenik eta behin, langile masa zabalei hobekuntza sozial eta politikoak ekarriko zizkien kontzesioak egiteko prest agertu ziren. Bigarrenik, ordena zaharra mantentzeko langile klaseko kideek erregimen zahararekin loturarik ez zutelako gaizki ikusten ez zituzten sektoreekin elkartu behar zuten. Bide horretan, armadako goi karguak eta industria astuna langile mugimenduko eskuineko sektorerara urbidu ziren. Azkenik, makurtzeko prest ez zegoen langile klaseko sektorea menderatu eta erreprimitzeko *Freikorps*-ak bezalako talde paramilitarren sorrera bultzatu zen.¹⁶

Iraultza testuinguruan, Asanblada Eratzailea deitzeko urgentzia zegoen, izan ere legalki eratuak gobernua bat soilik egon zitekeen egoera iraultzailea amaitzeko baldintzetan.¹⁷

¹⁴ Buchner, 2001: 11.

¹⁵ Collotti, Enzo, La Alemania nazi: desde la República de Weimar hasta la caída del Reich hitleriano (Madrid: Alianza, 1972), p.9.

¹⁶ Kühnl Reinhard; Kühnl Reinhard. La República De Weimar: Establecimiento, Estructuras Y Destrucción De Una Democracia; Estudios Universitarios, 47; Edicions Alfons El Magnànim, Institució Valenciana D'Estudis I Investigació: Valencia, España, 1991.

¹⁷ Ibid.

1.1.3. Versaillesko bake akordioa

Lehen Mundu Gerran jasandako porrotarekin eta Alemanian gertatutako iraultzarekin batera, Weimarko Errepublikaren eratze prozesuan eragin nabarmena izan zuen Versailleseko Tratatu bezala ezagutzen den bake akordioaren sinadurak. Bake akordio honen negoziaketak, guztiz baldintzatu zuten konstituzioaren eratze prozesua.¹⁸

Alemaniak Lehen Mundu Gerra galdu ondoren, gerran parte hartu zuten gainerako herrialdeekiko posizio ahulago batean gelditu zen bakea negoziatzerako orduan. Herrialde irabazleek, Estatu Batuak, Frantzia eta Erresuma Batuak buru ziren potentzia aliatuek beraien artean adostu zituzten bake akordioaren baldintzak, Alemaniak ez baitzuen negoziaketetan parte hartu. Bake akordioaren baldintzak ezartzerakoan, potentzia aliatuek kontuan izan zuten Alemaniak Errusiarekin Brest-Litovsk-eko bake akordioan izan zuen gogortasuna. Gainera, aliatuek egindako akordio proposamena negoziatzeko aukerarik ez zuen izan Alemaniak, akordio hau sinatu ezean Gerra berriro hasteko beldurra baitzuten Alemaniar agintari askok.

Tratatuaren edukiari dagokionez, besteak beste neurri hauek ezartzen zizkion Alemaniari: Alemaniako armada 450.000 kide izatetik 100.000 soldadu, 15.000 marinela eta 4.000 ofizial izatera igaro behar zen (159.art); armadak izan zitzaizkeen arma kopuruak mugatu ziren (164.art); Alemaniaren muga berriak zehaztu ziren eta lur asko galdu zituen (27-30.art); herrialde irabazleei indemnitzazioak ordaintzeko obligazioa ezarri zitzaion (232.art); etab.

Gainera, aipatzekoa da Versailleseko Tratatuak 231. artikulua xedatzen zuena:

“Gobernu aliatuek eta kideek adierazten dute eta Alemaniak aitortzen du, Alemania eta bere aliatuek gobernu aliatu eta bere bazkideei inposatu zien gerraren ondorioz Alemaniak eta bere aliatuek gobernu aliatu eta bazkideei eragindako kalte eta galeren erantzukizuna.”¹⁹

Ordain ekonomikoek gerra ondorengo ekonomian zama astuna suposatu zuten.²⁰ Hala ere, potentzia irabazleek aurrera eramandako politikaren helburua, alde batetik, Alemania ahultzea izan zen, bere baliabideak erauziz, baina, beste aldetik, Alemaniako burgesiari laguntzen saiatu ziren, Alemaniak sobiet iraultzaren bidea jarrai

¹⁸ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales).

¹⁹ Versailleseko Tratatu

²⁰ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales).

ez zezan. Izan ere, Errusiako Iraultzak eta Alemaniako altxamenduek Europan, eta epe luzean mundu kapitalista osoan, izan zitekeen iraultza sozialaren arriskua mahaigaineratu zuten.²¹

Tratatuaren edukiak eztabaidak sortu zituen Alemaniaren barnean, baita Gobernuaren osatzen zuen koalizioko alderdien artean ere. Alemaniako alderdi ezberdinen artean eztabaida gogorak egon ziren Asanblada Nazionalen eta alderdi askok akordiorekiko aurkakotasun gogorra adierazi zuten. Hala ere, potentzia aliatuek gerra berriro hasteko beldurrak bultzatuta gobernuak, Asanblada Nazionalaren onespenerekin, Akordioa sinatu zuen. Akordio honen sinadurak, gobernuaren zati handi baten dimisioa ekarri zuen.

1919ko ekainaren 28an Akordioa sinatu zen. Sinadura honek, Alemaniaren artean umilazio sentimendu bat sortu zuen. Beraz, esan liteke Weimarko Errepublikaren hasiera ez zela hasierarik onena izan. Izan ere, Alemaniako gizartearen sektore batentzat Tratatu judutarren, sozialisten eta bakezaleen bizkarreko eraso izan zen.²²

1.1.4. Prozesu eratzaillea

Asanblada eratzaillea osatzeko hauteskundeak 1919ko urtarrilaren 19an izan ziren. Hauteskunde horietan, 30.524.848 pertsonak parte hartu zuten, hautesle guztien %83a gutxi gorabehera. Hauteskunde hauetan, 1918ko azaroaren 30 eko hauteskunde legearen bidez emakumeen botoa baimendu zenez hautesle kopurua handitu egin zen. Aurreko erregimeneko alderdietatik Alderdi Sozialdemokratak eta Alderdi Sozialdemokrata Independentek bakarrik mantendu zuten izena. Gainerako alderdiek, nahiz eta beraien helburu eta konbikzioak mantendu beraien izena aldatu zuten.²³

Hauteskunde hauetan, sei alderdik parte hartu zuten: Alderdi Sozialdemokratak, *Zentrum-ek*, Alderdi Demokratikoak, Alderdi Nazional Popularrak, Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialdemokrata Independentek. Lehen hirurek gerora Weimarko Koalizioa osatuko zuten, eta ondorengo biak eskuineko alderdiak ziren. Asanblada Eratzailleko Hauteskundeetan Errepublikaren alde egin zuten alderdiek botoen hiru laurdena eskuratu zuten, Errepublikaren historia osoan alderdi hauen emaitza onenak izan ziren.

²¹ Kühnl Reinhard; Kühnl Reinhard. La República De Weimar: Establecimiento, Estructuras Y Destrucción De Una Democracia; Estudios Universitarios, 47; Edicions Alfons El Magnànim, Institució Valenciana D'Estudis I Investigació: Valencia, España, 1991.

²² Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales).

²³ Mortati, C.; Jellinek, W.; Buhler, O.; Rovira Armengol José; Alemania. La Constitución De Weimar: La Constitución Alemana De 11 De Agosto De 1919; Clásicos Del Pensamiento. Tercer Milenio, 112; Tecnos: Madrid, 2019.

Boto gehien Alderdi Sozialdemokratak lortu zituen, *Zentrum*-en eta Alderdi Demokrataren aurretik hurrenez hurren.²⁴

Asanblada Eratzailearen lehen ekintza Behin behineko botereen legea onartzea izan zen. Lege horrek ezartzen zuen etorkizuneko konstituzioa Asanblada Eratzaileak onartuko zuela. Lege honen onarpenak Komisarioen Gobernuarekin amaitzea ekarri zuen eta, honen ordeztan, botere banaketan oinarritutako eraikuntza instituzional bat ezarri zen. Bestalde, Behin behineko botereen lege honek Inperioko gaien gestioa Asanblada Eratzaileak hautatutako presidente bati esleitzen zion. Otsailaren 11n Asanbladak Ebert izendatu zuen Presidente eta, honek, berehala, gobernu bat eratzeko agindu zuen. Gobernu honek, ez zuen denbora asko iraun, Versailleseko Tratatuaren sinaduraren ondoren, gobernu osatze zuten koalizioko Alderdi Demokratako kideek dimititu egin baitzuten.²⁵

Asanblada Eratzaileak, Konstituzioa eratzeko lehen bilera 1919ko otsailaren 6an egin zuen Weimarko hirian eta egun horretatik apirilaren 15era bitartean elkartu ziren hiri horretan. Asanblada hau, *Reichstag*-aren barne erregelamenduko arauen arabera elkartu zen. Modu horretan, Alemaniako Estatuetakoa ordezkarietara eztabaidetan parte hartzen utzi zitzaion.²⁶

Konstituzio idazteaz Alderdi Sozialdemokratako kideak, Alderdi Demokratikoko Kideak eta *Zentrum*-eko kideak arduratu ziren. Koalizio horren aniztasun ideologikoak testu konstituzionalaren konpromezuzko izaera azaltzen du. Konstituzioa konpromezuz baten ondorio izan zen, gainera porrotaren eta kontzesio aldakorren ondorio ere izan zen, hasiera berri baten diseinu bikain bat baino gehiago.²⁷

Konstituzioa idazteko ardura Hugo Preuss Zuzenbide Politikoko irakasleari esleitu zitzaion. Preuss-ek hainbat proiektu konstituzional aurkeztu zituen. Konstituzioa onartzeko hiru deliberazio egin ziren Asanbladan eta, azkenik, uztailaren 31an Konstituzioa onartu zen, Koalizioko alderdien aldeko botoarekin. Konstituzioa ezinbestean Versailleseko Itunaren sinadurarekin lotuta azaldu zen eta, hasieratik, umilazioarekin eta porrotarekin loturan identifikatu zuen gizarteko sektore zabal batek.²⁸

²⁴ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales).

²⁵ Ibid.

²⁶ Mortati, C.; Jellinek, W.; Buhler, O.; Rovira Armengol José; Alemania. La Constitución De Weimar: La Constitución Alemana De 11 De Agosto De 1919; Clásicos Del Pensamiento. Tercer Milenio, 112; Tecnos: Madrid, 2019.

²⁷ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales).

²⁸ Ibid.

1.2. Sobietar Batasunaren sorrera testuingurua

1.2.1. Aurrekari historikoak

Sobietar Batasunaren sorreraz hitz egiten denean, ezinbestekoa da Errusiako 1917ko iraultzaz hitz egitea, baina 1917 aurretik Errusian zegoen testuingurua ezagutzeak eta urte horren aurretik jazo ziren gertakariak Errusiako iraultza hobeto ulertzen laguntzen dute. Iraultza aurreko urteetan Errusiako testuingurua zein zen ezagututa Errusiako langileria zeren aurka altxatu zen zehatzago jakin baikenezake. Bestalde, lehenago egon ziren iraultza saiakerak aztertuta, hauek 1917ko iraultzan izan zuten eragina ikus baitezakegu.

Autokrazia zaristaren itxura indartsuak ekonomia landatar geldo bat ezkutatzen zuen, zeinak aurrerapen oso gutxi egin baitzituen zerbitzarien askapenaz geroztik. Gainera, nekazalgora gosez eta egonezin zegoen. 1890 urtetik aurrera Errusiako ekonomia primitiboa industrializatzen hasi zen pixkanaka eta garatzen ari zen klase industrial eta finantzarioaren eragina eta aberastasuna atzerriko kapitalarekiko menpekota zen. Horrek, mendebaldeko ideia liberalak Errusian txertatzea ekarri zuen.²⁹

1905 urtarrilaren 9an Neguko Jauregian gertatutako sarraskiak mugimendu iraultzailea aktibatu zuen eta udaberrian eta udan jazotako nahasmenduek pixkanaka indarra eman zioten mugimendu iraultzaile honi, zeina urrian izan ziren greben ondoren bere puntu gorenera iritsi zen. Egoera horretan, Errusiako Nicolas II. Zarrak konstituzio liberal bat zin egin zuen.³⁰

Bestalde, Errusian 1917an izan zen iraultzan, ondorengo urteetan eta 1917ko iraultzan eragin nabarmena izan zuen gertakariak jazo ziren. Izan ere, 1905eko lehen Errusiar iraultzak proletarioaren antolakuntzarako forma berri bat sustatu zuen: Langile diputatuen Sobietak.³¹ Instituzio berri hau greban zeuden langileen jardun espontaneoaren ondorioz eratu zen.³²

²⁹ Carr, E. H.; Carr, E. H. La Revolución Rusa: De Lenin a Stalin, 1917-1929, 3a. ed.; Alianza: Madrid, 1985.

³⁰ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.63

³¹ Shafir, M. Los Soviets, Organos Del Poder Popular; Progreso. El País De Los Soviets; Progreso: Moscú, 1979., p.28.

³² Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.63

Sobietak, 1905eko iraultzan zehar, grebetako borroken organo gidari izatetik proletalgoaren altxamendu armaturako organo izatera pasa ziren. Altxamenduak garaipena lortzen zuen kasuetan, Sobietak botere iraultzaile sortu berriaren organoak bihurtzen ziren. Bilakaera honek azaltzen du Sobietek langile masa zabalengan izan zuten eragina, kasu askotan modu espontaneo batean eta beraien egituraketan hutsuneekin sortzen baitziren.³³

Sobietak Sobietar Batasunean garrantzia handia izan zuten zalantzarik gabe. Izan ere, estatu Sobietarraren antolakuntzako oinarrizko organoak izan ziren. Sobietar Batasuneko funtsezko organo hauen jatorria 1905eko iraultzan dago, iraultza saiakera horretan sobieten eraginkortasuna ikusi ondoren, 1917ko iraultzan instituzio hauen aldeko apustua egin zen. Beraz, 1905eko Sobieten esperientzia, proletalgoaren diktadura ezartzeko Sobieten estatu formaren Leninen teoriaren abiapuntu izan zen. Izan ere, 1905 urtearen ondoren eta, ondoren 1917ko iraultzako esperientzien ondoren, Sobietak Errusiako estatu proletarioa ezartzeko modu egokiena bezala ikusi ziren. Izan ere, Sobietek Parisko Komunaren oinarrizko printzipioak jasotzen zituzten eta Marx eta Engelsek proletalgoaren diktadura ezartzeko Errepublika Demokratikoaren forma esperientzia horretan oinarrituz ezaugarritu zuten. Beraz, Sobietek, proletalgoak boterea hartu eta klase agintari bihurtzean, estatuak hartu behar zuen formari buruz Marx eta Engelsek garatutako teoria garatu eta forma konkretua emateko balio izan zuen. Izan ere, Marx eta Engelsek proletalgoaren diktadura ezartzeko estatu demokratikoaren forma zehaztu ahal izateko zeukaten esperientzia oso mugatua zen. Lehen esperientzia Parisko Komunakoa izan baitzen eta honen iraupena oso laburra izan zen. Horregatik, Sobieten esperientziak Parisko Komunako esperientzian oinarritutako estatu demokratikoaren oinarrizko ezaugarriak gehiago garatu eta oinarri praktikoa eman ahal izateko balio izan zuten.³⁴

1905eko iraultzan Sobieten antolakuntzan figura garrantzitsua izan zen Trotski, San Petersburg-eko sobieteko presidente izendatu zutelarik. Trotski 1917ko iraultzan figura garrantzitsua izan zen eta Botxebikeen botere hartzean parte hartze garrantzitsua izan zuen, nahiz eta iraultza aurreko urteetan Mentxebikeekiko gertutasuna izan zuen eta Vladimir Leninekin eztabaidak izan zituen. Lehen Mundu Gerratik irteteko Errusiak Alemaniarekin sinatu zuen Brest-Litovsk-eko bake akordioan negoziaketetan parte hartu zuen eta iraultza ondorengo Gerra Zibilean Gai Militarretako Komisario izendatu zuten.

³³ Shafir, M. Los Soviets, Órganos Del Poder Popular; Progreso. El País De Los Soviets; Progreso: Moscú, 1979., p.29.

³⁴ Shafir, M. Los Soviets, Órganos Del Poder Popular; Progreso. El País De Los Soviets; Progreso: Moscú, 1979., p.27.

Alderdi Boltxebikea 1917ko iraultzan erabakigarria izan zen beste elementu bat izan zen. Honen jatorria eta oinarri ideologikoak aztertzeko 1917 urte aurreko urteak aztertu behar dira. Alderdi Boltxebikearen jatorria Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokratan dago, zeina Minsk-en 1898an bederatzi kidek egindako kongresu baten ondoren sortu zen. Kongresu hau, Errusian alderdi marxista bat eratzeko lehen saiakera izan zen.³⁵ Kongresu horretan ez zen ez estatuturik ez programarik onartu, ezta talde marxista ezberdinak gidatuko zituen zuzendaritzarik ere. Gainera, talde hauek ez zeukaten langile mugimenduarekin loturarik. Talde marxista hauen eta langile mugimenduaren arteko lehen elkarketa Leninen eskutik etorri zen Langile Klasearen Askapenerako Borroka Batasuna eratu zuelarik. Hala ere, benetako alderdi iraultzaile baten hasiera 1900 urtean eman zen, Iskra egunkariaren sorrerarekin. Egunkari horretan Leninen “Zer egin?” testuan landutako gaiak lantzen ziren batez ere eta Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokrataren II. Kongresuko prestaketan eragin nabarmena izan zuen.³⁶

1903an izan zen Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokrataren II. Kongresua izan zen alderdia bentan eratu zuen eta bertan eman zen Boltxebikeen eta Mentxebikeen arteko zatiketa. Zatiketa hau areagotuz joan zen, 1912 urtean erabat banandu ziren arte.³⁷ Kongresuan Iskra-ren ildo politikoaren aldekoen eta aurkakoen arteko eztabaidak eman ziren, bestalde Iskra-ko kideak ere banandu egin ziren zenbait auziren inguruan. Eztabaida horietan gehiengo osatzen zutenei Boltxebike deitu zitzairen, errusieraz gehiengo esan nahi baitu eta, aldiz, gutxiengo zirenei Mentxebike deitu zitzairen, errusieraz gutxiengo esan nahi baitu.³⁸

Alderdiko fakzio Boltxebikeak eta Mentxebikeak tesi batzuekiko desadostasunak izan zituzten. Lehenik eta behin, alderdiaren izaeraren inguruan eztabaidak izan zituzten. Leninek eta Boltxebikeek, alderdia disziplinan eta zentralismoan oinarrituta antolatzea defendatzen zuen eta langile masekiko alderdiaren gidaritza funtzioa azpimarratzen zuen. Honen aurrean, Leninen arerioek honen gehiegizko zentralismoa kritikatzeko zuten, proletalgoak gutxiengo batzuen aginduei men egitera eramaten baitzuen. Bestalde, Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokratako bi fakzioek

³⁵ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.18.

³⁶ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.106.

³⁷ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.41

³⁸ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.106.

marxismoaren irakurketa ezberdina egiten zuten. Marxismoak, garapen sozial eta ekonomikoaren legeak formulatzen ditu alde batetik, baina lege horiek gauzatzeko ekintzetara jotzeko bultzatzen du. Marxismoaren bi alderdi hauen inguruan, Mentxebikeek marxismoaren eskema eboluzionista urratu eta iraultza gertatzeko baldintzak egon gabe iraultza antolatzea aurpegiratzen zien Boltxebikeei. Bestalde, Boltxebikeen ustetan, Mentxebikeek iraultza garapen historikoaren prozesu bezala ulertzen zuten eta ez modu kontziente batean antolatu behar den plan bat bezala.

Izan ere, Mentxebikeek Errusian iraultza proletario sozialista egin aurretik iraultza demokratiko burgesa gertatu behar zela defendatzen zuten. Izan ere, iraultza burgesa eman eta kapitalismoa garatu arte proletalgoak iraultza sozialista emateko nahikoa indar ez zuela edukiko defendatzen zuten. Boltxebikeek, aldiz, defendatzen zuten Errusian bi iraultzak lotuta eman zitezkeela eta proletalgoaren eskutik etorriko zirela. Boltxebikeek Mentxebikeak kritikatzeko zituzten teoria iraultzailean tematzen zirela esanez, ekintza iraultzailearen antolaketa atzeratuz, eta klasearen kontzeptu ekonomizistari lehentasuna ematen zirela alderdiaren kontzeptu politikoaren aurretik. Mentxebismoa mendebaldeko tradizio eta pentsamenduan errotuta zegoen, baina Errusiako errealitate aldenduta zegoen.³⁹

Orain arte azaldutakoan argi ikusten den bezala, Alderdi Boltxebikean eragina handiena izan zuen pertsona Lenin izan zen. Leninek, gaztetatik militantzia politikoan jardun zuen. Unibertsitateko ikasketetan zegoela atxilotua eta erbesteratua izan zen. Erbestean, marxista legalen, ekonomizisten eta narodnikien aurkako lan teorikoak idatzi zituen. 1900 urtean Iskra egunkariaren sortzaileetako bat izan zen eta, ondoren, Errusiako Alderdi Sozialdemokratako fakzio Boltxebikearen buru nagusietako bat izan zen. Teorikoki eragin nabarmena izan zuen Boltxebikeengan eta 1917ko iraultzan figura garrantzitsuenetako bat izan zen.

1.2.2. Otsaileko iraultza

Románov dinastia eraitsi zuen 1917ko otsaileko iraultza, modu espontaneo batean gertatu zen, gerrak eragindako gabeziek langile masa zabalengan sortutako

³⁹ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.41-60

nekearen eta gerraren zamaren banaketa desberdinaren ondorioz.⁴⁰ Iraultza honen ondorioz eta erregimen zarista eraitsi ondoren, behin-behineko gobernu bat ezarri zen Errusian. Iraultzak izaera demokratiko-burgesa izan zuen eta ez zuen langile klaseak boterea hartzea bilatzen. Aitzitik, burgesiak eta funtzionarioek iraultza ongi ikusi zuten hasieratik eta, ondoren, beraien mesedetarako baliatu zuten; behin-behineko gobernu osatu zuten kide gehienak sektore hauetako biztanleak baitziren.⁴¹ Gainera, gobernu hau Alderdi Sozialdemokratako fakzio mentxebikearen eraginpean eratu zen.⁴²

Otsaileko iraultzaren eraginez, behin-behineko gobernu bat eratzeaz gain, 1905eko iraultzan bezala, langileen, soldaduen eta nekazarien Sobietak eratu ziren Errusia osoan zehar. Sobiet hauek, hasiera batean, ez zuten boterea hartzeko xederik, baina Sobieten dekretuek geroz eta langile eta nekazari gehiagoren onarpena eskuratu zuten eta autoritate posizio ukaezin bat eman zien Sobietei. Otsaileko iraultzak ezarri zuen botere bikoitzaren oinarri praktikoa eta ustekabekoa izan zen gertakari hau. Egoera horretan, botere publikoa egikaritzen zuten bi erakunde zeuden: alde batetik, gobernu zaristaren oinordekoa zen behin-behineko Gobernua eta, bestetik, langileen inizatiba propioz eratutako Langile Diputatuen Sobiet iraultzaileak. Bi erakunde hauen arteko harremana etsaitasun eta kooperazio harreman bat zen aldi berean.⁴³

1917ko otsailetik urrira bitartean, alderdi sozialdemokratako fakzio bolchevikea langile Sobietetan bere eragina handituz joan zen, fakzio menchevikeak gerra inperialistan jarraitzea babestu eta burgesiarekin kolaboratzeagatik ospea galdu baitzuen.⁴⁴ Denbora tarte horretako lehen hilabeteetan, Leninek adierazi zuen bezala, langile eta soldaduen masa zabala "*defensismo iraultzaileak intoxikatuta*"⁴⁵ zegoen. Apiriletik aurrera, ordea, egoera abiadura handiz aldatuz joan zen. Izan ere, langile eta soldaduek, geroz eta garbiago hautematen zuten gerran jarraitzeak Errusiako burgesiaren eta Frantziako eta Ingalaterrako burgesia inperialistaren interesei erantzuten ziela eta ez zettorrela langileen interesekin bat.⁴⁶

⁴⁰ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.86

⁴¹ Ibid., p.86

⁴² Carlos Barros, Revolución de Octubre, historia y memoria, Izquierdas, 43, diciembre 2018:259-277

⁴³ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.87

⁴⁴ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.63

⁴⁵ Lenin, Primera Carta sobre táctica, en OC, t. 24, p. 45.

⁴⁶ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.67

Zentzu horretan, Boltxebikeek urrira bitartean izan zuten jokabidea eta beraien helburuak argitzeko balio digu Leninek erbestetik bueltan aldarrikatutako Apirileko Tesiek. Tesi horietan, Leninek honela deskribatu zuen Errusiako egoera: *“Gaur egungo errusiaren berezitasuna proletalgoak nahikoa kontzientzia eta antolakuntza maila ez izateagatik burgesiari boterea eman dion iraultzaren lehen fasetik bigarren fasera pasatzean datza, zeinetan boterea proletalgoaren eta nekazarien geruza xumearen eskuetan jarriko den.”* Bestalde, Boltxebikeen eginbeharra *“Gobernuari babesik ez ematea; beraien promesen faltsukeria azaltzea(...)”* zela adierazi zuen eta, aldi berean, *“estatuko botere guztia diputatu langileen sobietei emateko beharra”* aldarrikatu zuen, *“esperientzian oinarrituta, masek beraien akatsak konpon ditzaten.”* Gainera, defendatu zuen *“langile masei gobernu iraultzaile bakarria langile diputatuen Sobietak direla azaldu behar zaiela”* eta *“Gobernuari kareta kendu behar zaizkiola, kapitalisten gobernu bat baita”*.⁴⁷

Bi gobernu ezberdinetan zetzan botere bikoitzaren auzia sakonago aztertu zuen Leninek Pravda aldizkarian argitaratutako artikulua batean. Bertan, Behin behineko gobernu burgesiaren gobernu zela eta Sobietak langile eta nekazarien diktadura zirela azaldu zuen eta etorkizuna proletalgoaren eta burgesiaren arteko nekazarien atxikipena lortzeko borrokak erabakiko zuela zehaztu zuen.⁴⁸ Leninek azaldu zuen, Errusiako iraultzako botere bikoitzaren berezitasun hau elkar lotutako bi prozesu iraultzaile ezberdinen ondorio izan zen: iraultza proletarioaren prozesua eta iraultza demokratiko burgesarena hain zuzen ere.⁴⁹

Leninek babestutako Errusiako testuinguru iraultzailearen irakurketaren zati zabal batekin bat egin zuen Alderdi Boltxebikeak, Errusia osoko Alderdiaren Konferentzian. Apirileko Konferentzia horretan *“botere guztia Sobietentzat”* aldarrikatzen zuen kontsigna onartzeak ez zuen berehalako ekintza iraultzailerik piztu, baina iraultzaren eredu Boltxebikeari lehen aldiz forma zehatz eta molde konstituzionala eman zion.⁵⁰ Garai horretan, Leninek Sobietak 1871ko Parisko Komunako boterearen parekoak zirela aldarrikatzen zuen. Botere horren oinarria ez zetzan aurrez

⁴⁷ Lenin, *Apirileko Tesiak*

⁴⁸ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.98

⁴⁹ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.67

⁵⁰ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.101

eztabaidatutako eta parlamentu batek onartutako lege batean. Aitzitik, masa zabalek iniziatiba propioz behetik eraturako usurpazio zuzena zen.⁵¹

Apirilean gauzatutako konferentzia honen ondoren eman ziren mugimendu politiko ia denek, alderdi Boltxebikea indartu zuten eta Leninek plazaratutako kalkuluak justifikatu zituzten.⁵² Maiatzaren hasieran, Gobernu berri bat eratu zen eta gobernu horretan Sobieten ordezkari bezala bi Eserista, bi Metxebike eta bi sozialista independente sartu ziren. Modu horretan, Boltxebikeak ziren koalizio burges-sozialistak eraturako gobernuan parte hartzeagatik lotuta ez zeuden bakarrak eta bakea lortzeko politika zehaztua zuten bakarrak. Gertaera hauen ondorioz, Boltxebikeek langile eta soldaduen masa zabalen konfiantza irabazi eta botere agintari bezala finkatzeko prozesua hasi zen.⁵³

Bestalde, udatik aurrera nekazalgoak lursailen jabetzak eskuratu zituenez burgesiarendik banatuz joan zen materialki. Hala ere, ideologikoki eta politikoki ez zuen erabat apurtu burgesiarekin. Gainera, uda bukaeran eta udazken hasieran botere burgesa ordezkatzeko behin-behineko gobernuak nekazalgoa erreprimitu zuen, ez nekazalgoaren ekintzek garapen kapitalistaren oinarria zalantzan jartzen zutelako, baizik eta burgesiaren berehalako interesek lurjabe handien interesekin bat egiten zuelako.⁵⁴

1.2.3. Urriko iraultza

Testuinguru horretan, Boltxebikeek boterea hartzeko beharra ikusi zuten iraultzarekin jarraitu eta sozialismoa eraikitzen bidean. Irailean, Kornilov jeneral eskuindarraren botere hartze saiakeraren ondoren, Boltxebikeek, Mosku eta Petrogradoko sobietetan gehiengoa lortu zuten.⁵⁵ Leninek apirileko tesietan babestu zituen iraultzaren bigarren fasera igarotzeko baldintzak zeuden egoera horretan. Gauzak honela, Leninek botere guztia sobietei ematearen aldarria berriro berreskuratu zuen eta "*proletalgoaren munduko iraultzaren atarian*" zeudela aldarrikatu zuen *Krisia heldu da* artikuluan. Artikulu horretan, besteak beste, iraultza horren berehalakotasuna frogatzeko, aurretik mahaigaineratutako argudioak errepikatzeaz gain, argudio berri bat

⁵¹ Ibid., p.103

⁵² Ibid., p.104

⁵³ Ibid., p.104

⁵⁴ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.73

⁵⁵ Carr, E. H.; Carr, E. H. La Revolución Rusa: De Lenin a Stalin, 1917-1929, 3a. ed.; Alianza: Madrid, 1985.

plazaratu zuen: hain zuzen ere, gerran zeuden herrialdeetan gertatzen ari ziren desordena geroz eta ugariagoak eta Alemaniako armada eta ontziteriko matxinadak zirela testuinguru horren adierazgarri.⁵⁶

Urri hasieran, Lenin erbestetik itzuli zen, alderdi Boltxebikeko komite zentralaren bilerara joateko. Komite zentralak, bilera horretan, berehalako botere hartze bat prestatzea erabaki zuen Zinoviev eta Kameneven aurkakotasun soilarekin. Botere hartze horren prestaketak, Sobieten Kongresuko komite zentralak eraturako komite iraultzaile militar baten bidez gauzatu ziren, zeina Boltxebikeen kontrolpean zegoen. Operazioaren prestaketetan Trotski figura garrantzitsua izan zen, udan Petrogradora itzuli eta Boltxebikeekin bat egin berritan.⁵⁷

Altxamenduaren eguna, Errusia osoko Sobieten Kongresuarekin bat egiteko asmoz zehaztu zen. Urriaren 25ean eman zen altxamendua, gehienbat industriako langilez osatuta zegoen Guardia Gorriak Petrogradoko hiriko leku estrategikoak hartu zituen eta Neguko Jauregira iritsi ziren. Behin behineko Gobernu inolako erresistentziarik gabe erori zen. Zenbait ministro atxilotuak izan ziren eta Lehen ministroak, Kerenskik, erbestera ihes egin zuen.⁵⁸

Urriko iraultzak burgesiaren diktadura ezabatu zuen eta proletalgoaren diktadura ezarri zuen. Izan ere, proletalgoa klase gidari bezala ezartzea ahalbidetu zuen, iraultzarekin jarraitzeko helburuz, hots, iraultza demokratikoaren zereginak egikaritu eta sozialismoaren eraikuntzaren bidean lehen urratsak emateko. Mundu mailako historian garrantzia izan zuen aldaketa honek. Urriko Iraultza, klase arteko harreman berrien ondorio izan zen, izan ere, boterea klaseen arteko indar harremanean datza.⁵⁹

Iraultza honetan alderdi Boltxebikeak izan zuen garrantzia ukazina da, Rosa Luxemburgok iraultzaren ondorenean adierazi zuen bezala, "*iraultza bultzatu zuen elementu bakarra izan zen eta, beraz, benetako politika sozialista aplikatu zuen alderdi bakarra*".⁶⁰ Alderdi Boltxebikea izan zen proletalgoa klase agintari bihurtzea lortu zuena. Proletalgoaren sektore borrokalariarekin ezarri zituen konfiantzazko loturen eraginez,

⁵⁶ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad]; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.110

⁵⁷ Carr, E. H.; Carr, E. H. La Revolución Rusa: De Lenin a Stalin, 1917-1929, 3a. ed.; Alianza: Madrid, 1985.

⁵⁸ Carr, E. H.; Carr, E. H. La Revolución Rusa: De Lenin a Stalin, 1917-1929, 3a. ed.; Alianza: Madrid, 1985.

⁵⁹ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I / . 77

⁶⁰ Luxemburg, R. La Revolución Rusa; Akal/básica De Bolsillo, 330; Akal: Tres Cantos, Madrid, España, 2017.

alderdia proletalgoaren diktaduraren tresna izan zen eta ideologiaren eta praktika proletarioaren gidari izan zen.⁶¹

1917ko urriaren ondoren, botere proletarioa, proletalgoaren antolakuntza klase agintari bezala, alderdiaren bitartekaritzaren bidez egikaritzen da. Botere proletarioa alderdi honen bidez gauzatzen da, zeinak estatuaren boterea barne hatzen duen, baina ez da botere horretara mugatzen. Proletalgoaren botere hartze hau, Leninek proletalgoaren diktadura bezala izendatu zuen. Iraultza ondorengo hilabeteetan proletalgoaren diktadurak zituen ezaugarriak Leninek azaldu zituen *Sindikatuak eta gaur egungo egoera* artikuluan.⁶² Artikulu horretan zehaztu zuen “*alderdiak, nolabait, proletalgoaren abanguardia bere baitan zeramala*” eta berau zela “*proletalgoaren diktadura egikaritzen zuena*”. Bestalde, sindikatuen papera azpimarratu zuen “*masa zabalen eta abangardiaren arteko lotura*” ahalbideratzen zuen antolakuntza forma bezala

Gobernuaren aurreneko ekintzetako bat Alemaniarekin armistizioa sinatu eta bakea eskatzea izan zen. Zenbait negoziaketen ondoren, Alemaniako tropen presioak bultzatuta, 1918ko martxoaren 3an Brest Litovsk-eko bake akordioa sinatu zen. Beraz, Urriko iraultzak mendebaldeko munduan eragin zuen lehen ondorioa Errusiak gerra utzi eta Alemaniaren aurkako gudan aliatuen bandoa desertatzea izan zen. Gainera, Gerra utzi eta berehala, aurreko Gobernu errusiarren zorrak ordaintzeari uko egin zioten eta lur jabeak eta fabriken jabeak desjabetu zituzten. Errusiak neurri hauek hartu izana eta, Errusiako iraultza, iraultza Europan eta mundu mailan zabaltzeko lehen pausu bezala ezaugarritu izana, mendebaldeko gizarte kapitalistaren aurkako eraso zuzentzat hartu zen⁶³.

Iraultza maila internazionalen zabaltzaren auziak berebiziko garrantzia zuen iraultza egikaritu zuten Errusiarrentzat. Gerran zeuden herrialde nagusietakoren batean iraultza ez emateak erregimen sozialistaren biziraupena asko zailtzen zuen.⁶⁴ Zentzu horretan, adierazgarria da Leninek 1918ko urtarrilean idatzitako Herri Langile eta Zapalduaren Eskubideen adierazpena. Adierazpen horretan, “*erregimen sozialistaren zeregin nagusia*” “*gizartearen antolaketa sozialista eta herrialde guztietan sozialismoaren garaipena*”⁶⁵ lortzea zela ezartzen zen.

⁶¹ Bettelheim, C.; Bettelheim, C. Las Luchas De Clases En La Urss; Sociología Y Política; Siglo XXI: Madrid etc., 1976; Vol. V. I /., p.78

⁶² Ibid., p.83

⁶³ Carr, E. H.; Carr, E. H. La Revolución Rusa: De Lenin a Stalin, 1917-1929, 3a. ed.; Alianza: Madrid, 1985.

⁶⁴ Ibid.

⁶⁵ Lenin, Herri Langile eta Zapalduaren Eskubideen adierazpena, 1918

Urriko iraultza ondoren garrantzia izan zuen beste auzi bat Asanblada Eratzailea osatzeko ospatu ziren hauteskundeena izan zen. Otsailetik Urrira bitartean alderdi Boltxebikeak egin zituen adierazpen ugaritan hauteskunde hauek ospatzeko konpromisoa hartu zuten.⁶⁶ Urriko iraultza ondoren eratu zen gobernuak azaroaren 12-25 egunetarako deitu zituen hauteskundeak. Hauteskunde hauetan, Eseristek lortu zuten gehiengoa eta Boltxebikeek eserleku guztien laurdena baino gutxiago lortu zuten. Asanblada eratzaileko hauteskundeetako emaitzek adierazten zuten erregimen sozialistaren oposizioko taldeen bilgune funtzioa beteko zuela honek.⁶⁷ Egoera honen aurrean Leninek *Asanblada eratzailearen inguruko Tesiak* idatzian, besteak beste, defendatu zuen “*Sobieten errepublika bat printzipio demokratikoen forma gorenagoa dela, ohiko Asanblada Eratzailea duen errepublika burgesa baino*” eta “*sozialismora trantsizioa bermatzeko forma bakarra dela*”⁶⁸ Sobieten errepublika. Leninek idatzi horretan defendatutako tesiekin bat egin zuen alderdi Boltxebikeak. Honek, alderdi Boltxebikearen eta gainerako alderdi sozialisten arteko zatiketa areagotzea ekarri zuen eta Asanblada Eratzailearen patua zehaztu zuen, iraultzaren etapa demokratikoa gaindituta baitzegoen eta iraultza sozialistak ordeztu baitzuen.⁶⁹ Egoera horretan, 1918ko urtarrilaren 10-23ko Errusia osoko Sobieten Kongresuko debateetan Asanblada Eratzailearen desagertze formala baieztatu zen eta organo horrek hartu zuen Asanblada Eratzailearen oinordetza.⁷⁰

1.3.3. Prozesu eratzaileko testuingurua: Gerra Zibila eta alderdi bakarra

Konstituzioa idazten ari ziren garaiko testuingurua konplexua izan zen Errusian eta honek konstituzioaren idazketak garrantzia galtzea eta momentuko arazoei irtenbidea emateak pisu garrantzitsuagoa izatea ekarri zuen.

Urriko iraultza jazo ondoren eta Sobietetan oinarritutako estatua eratu ondoren, Errusian gertatutako iraultza sozialista maila internazionalen hedatzea zen helburua eta, beraz, potentzien arteko gerra klase arteko gerra bilakatzea bilatzen zen. Baina Errusiako egoera korapilatsua zen iraultzaren hedapen hau jazo ahal izateko. Izan ere,

⁶⁶ Carr, E. H.; Ortega, S. *Historia De La Rusia Soviética*, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, *La Revolución Bolchevique (1917-1923)*. *La Conquista Y Organización Del Poder /.*, p.126

⁶⁷ *Ibid.*, p.130

⁶⁸ Lenín, *Asanblada eratzailearen inguruko Tesiak*

⁶⁹ Carr, E. H.; Ortega, S. *Historia De La Rusia Soviética*, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, *La Revolución Bolchevique (1917-1923)*. *La Conquista Y Organización Del Poder /.*, p.131

⁷⁰ *Ibid.*, p.137

iraultzarekiko aurkakoak ziren indar militar errusiarrak lurraldeko eremu ezberdinetan elkartzen hasi ziren eta, gainera, Alemaniako armadak Ukrainako mugan presioa egiten jarraitzen zuen. Egoera hau ikusita eta iraultza mendebaldera hedatzeko beldurrez, Mendebaldeko potentziek, Ingalaterrak, Frantziak eta Estatu Batuek besteak beste, tropak bidali zituzten Errusiako lurraldera. Denborak aurrera egin ahala, Lehen Mundu Gerrako nekeak eraginda, potentzia handiak ez ziren gerran jarraitzearen aldekoak, baina, hala ere Boltxebikeen aurka borrokan zeuden armada errusiarrei laguntza eman zieten. Gerra Zibil honek, beraz, bi munduren arteko borroka adierazten zuen: alde batetik, mundu kapitalista eta, bestetik, mundu hori eraitsi nahi zuen mundu iraultzailea.⁷¹

Gerra Zibilaren testuinguru horretan, ekoizpena gelditu egin zen eta behar militarrei erantzutera bideratu ziren. Iraultzak eta Gerra Zibilak desintegrazio ekonomiko, sozial eta finantzarioa ekarri zuten eta herritar masa zabalaren artean gosea eta hotza hedatu zen. Erregimen sozialistak egunez egun biziraun behar izan zuen. Gerra Zibilak eragindako ezegonkortasunak eta ekonomiaren geldialdiaren eraginez, 1918ko udan gobernuak zenbait neurri hartu behar izan zituen, gerora “gerra komunismoa” bezala ezagutuak izango ziren neurri horiek. Neurri horien baitan janaria lortu eta banatzea zen helburu nagusia eta helburu horretarako eratu ziren nekazari txiroen komiteak. Baina, Gerra Zibilaren testuinguruan ezinezkoa zen nekazaritza-produkzioa indartzea. Industriari dagokionez, industriako kategoria garrantzitsuak nazionalizatzen zituen dekretu bat argitaratu zen 1918ko ekainaren 28an. Hala ere, neurri hauen eragina mugatua izan zen eta industria iraultza aurretik industrian lan egiten zutenek kontrolatzen jarraitu zuten.⁷²

Konstituzioa egin zen testuinguruan eragina izan zuen beste faktore bat Alderdi Boltxebikea Sobieten sisteman alderdi bakar bezala finkatzen joan izana izan zen. 1917ko urritik, gerora Errusiako Alderdi Komunista bihurtuko zen Errusiako Langile Alderdi Sozialdemokratako fakzio Boltxebikeak aldaketak jasan zituen, nahiz eta Leninen ezarritako zigilua izaten jarraitu zuen. Urriko iraultzatik Leninen heriotzara bitartean alderdia ezaugarritu zuten hiru prozesu nagusi eman ziren: hasteko, alderdiaren erdiguneko agintaritzaren autoritatea areagotu zen. Bigarrenik, alderdia antolakuntza iraultzailea izatetik eta instituzioen suntsitzea bilatzetik, gobernu eta

⁷¹ Carr, E. H.; Carr, E. H. La Revolución Rusa: De Lenin a Stalin, 1917-1929, 3a. ed.; Alianza: Madrid, 1985.

⁷² Ibid.

administrazioko pieza garrantzitsu izatera igaro zen. Azkenik, beste alderdi guztiak ezabatuz monopolio posizio bat bereganatu zuen.⁷³

Alderdi Boltxebikeak eskuratu zuen monopolioari dagokionez, 1918ko udaren ondoren gainerako alderdi politiko guztiak modu prekario batean bizirauten zuten eta 1921 urtean desagertu egingo ziren birtualki. Zehazki, 1918ko uztailean, Alderdi Eseristako zenbait kidek atentatu bat egin ondoren alderdi hau Sobieten antolakuntzatik kanpo uztea erabaki zen, aurretik Mentxebikeekin eta beste alderdiekin egin zen bezala eta honen ostean, 1918ko uztailaren 10ean aldarrikatu zuten Konstituzioa. Beraz, Konstituzioa alderdi bakarreko estatu bat eraikitza bidean pausu garrantzitsu bat gertatu ondoren aldarrikatu zen.⁷⁴

2. Weimarko errepublikako eta Sobietar Batasuneko Zuzenbidearen alderaketa

2.1. Boterearen antolaketa

Hasteko, aipatu behar da 1919ko Konstituzioak Alemania Inperio bezala izendatzen jarraitu zuela. Alemania Inperio bezala 1871. Urtean izendatu zen, Prusiaren gidaritzapean Alemaniako estatuek estatu konfederal bat eratu zutenean eta estatu horrentzat enperadore bat izendatu zenean. 1918an, enperadoreak abdikatu eta errepublika ezarri zenean, Konstituzioa egin zuten alderdi ezberdinak ez ziren ados jarri Alemaniari izendapen berria ematerako orduan eta, beraz, Inperio bezala izendatzen jarraitzea erabaki zuten.⁷⁵

1919ko Weimarko Konstituzioak estatuko botereen arteko botere banaketaren sistema ezarri zuen. Konstituzioko 68.artikuluak, botere legegilea Reichstag-ari esleitzen zion. *Reichstag*-a, 20.artikuluaren arabera, "*Alemaniako diputatuek osatzen*" zuten. Diputatu hauek, herritarren ordezkariak ziren. Diputatuen hautaketari dagokionez, 21.artikuluak honakoa xedatzen zuen: "*Diputatuak 20 urte baina gehiagoko gizon eta*

⁷³ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.201

⁷⁴ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /.

⁷⁵ Mortati, C.; Jellinek, W.; Buhler, O.; Rovira Armengol José; Alemania. La Constitución De Weimar: La Constitución Alemana De 11 De Agosto De 1919; Clásicos Del Pensamiento. Tercer Milenio, 112; Tecnos: Madrid, 2019.

emakumeen sufragio unibertsal, berdin, zuzen eta sekretu bidez eta ordezkari-tza proportzionalaren printzipioen arabera izango dira hautatuak (...)

Botere exekutiboari dagokionez, bi organo ezberdinen artean egikaritzen zen. Alde batetik, Inperioko presidentea zegoen. Presidentea Alemaniarrak hautatzen zuten hauteskunde bidez. Bere, funtzioen artean nabarmentzen ziren: harreman internazionaletan Inperio Alemaniarraren ordezkari izatea (45.art), defentsa indarren agintari gorena zen (47.art), grazia eskubidearen jabe zen (49.art) eta Gobernuko burua eta ministroak hautatzeko eskumena zuen (53.art).

Beste aldetik, Kantzilerrak eta ministroek osatutako Inperioko Gobernuak zegoen. Esan bezala, Kantzilerra eta ministroak hautatzeko eskumena Inperioko Presidenteari zegokion, baina Konstituzioko 58.artikuluak xedatzen zuen Kantzilerrak eta ministroek beraien karguak betetzeko *Reichstag*-aren konfiantza beharrezkoa zutela. Gobernuaren eta gobernuko kideen zereginen artean, 59.artikuluak zehazten zuen Kantzilerrari zegokiola politikaren ildo orokorrak zehaztea eta ministro bakoitzak berari dagokion adarreko gaiak zuzentzen zituela. Bestalde, Gobernuaren funtzio exekutiboari buruz 77.artikuluak honakoa xedatzen zuen: *“Inperioko Gobernuak Inperioko legeak exekutatze-ko beharrezkoak diren arau administratibo orokorrak xedatuko ditu (...)*” Gainera, Konstituzioko 68.artikuluak lege proposamenak egiteko eskumena esleitzen zion, *Reichstag*-eko kideekin batera.

Azkenik, botere judizialari dagokionez, 103.artikuluak xedatzen zuen *“Jurisdikzio arrunta Inperioko Tribunalak eta Herrialdeetako Tribunalak egikaritze-ko dutela”*. Bestalde, 104.artikuluak epaileen izaera independentea azpimarratzen zuen eta hauek soilik legearen menpe daudela zehazten zuen.

Beraz, esan daiteke Weimarko gobernu forma parlamentarioa zela. Izan ere, Gobernuko ministroak *Reichstag*-aren aurrean erantzuten zuten eta ministroek beraien karguan jarraitzea *Reichstag*-ak hauei emandako konfiantzaren menpe zegoen.⁷⁶ Honek, ezinbestean, Gobernu bat osatu ahal izateko parlamentuan gehiengoak egotea eskatzen zuen, baina hauteskunde sistema proportzionalak elkarren artean elkarlana ezinezkoa zen parlamentuko talde ezberdinen zatiketa ekarri zuen, eta honek, aldi berea, erregimena egonkortzea ahalbidetuko zuen koalizio edo gehiengo egonkor-
rak sortzea ezinezko egin zuen.⁷⁷

⁷⁶ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales)., p. 77.

⁷⁷ Ibid., p.80.

Eredu parlamentarista honen hautaketa ez zen ausazko gertakizun bat izan, testuinguruak baldintzatu baitzuen, testu konstituzionala idatzi zuten juristek, erregimen demokratiko berria parlamentuak indarra hartzearen beharra ikustea. Zentzu horretan, argigarria da garai horretan jurista garrantzitsua izan zen Erich Kaufmanek esandakoa: *“monarkiaren erorketaren ondoren eta zurrunbilo iraultzailean murgilduta gehiengo parlamentario baten nagusitasunaren edo proletalgoaren diktaduraren artean aukeratzea beste irtenbiderik ez genuen, horregatik parlamentarismoa bihurtu zen eraiki genezaken lurzoru bakarra, eredu errusiarra ekidin ahal izateko (...).”*⁷⁸

Weimarko Errepublikan parlamentuari eman zitzaizkion botere eta eskumenen aurrean, Estatuburuari botere legegilearen eta gidaritza politikoaren gehiegikeriei mugak jartzeko zeregina ezarri zitzaion.⁷⁹ Modu horretan, parlamentarismo tradizionalari herritarrek zuzenean hauteskunde bidez hautatutako Presidente bat erantsi zitzaion. Gobernuarekiko eta *Reichstag*-arekiko independentea zen botere honen zeregina *Reichstag*-ari eta honek babestutako gobernuari kontrapisua egitea zen beraz.⁸⁰ Presidentearen boterea zuzenean herritarren borondatek zetorren, *Reichstag*-aren kasuan bezala. Honek, parlamentuaren kontrol lanak gauzatzeko legitimitatea ematen zion presidenteari. Hala ere, presidentea herritarrek zuzenean hautatzeak, honek joera politiko jakin bati erantzutea ekarri zezakeen eta kasu askotan hala izan zen Weimarko Errepublikan.⁸¹

Parlamentuaren gehiegikeriak mugatu eta honen jardunaren kontrola gauzatzeko, Weimarko Konstituzioak zenbait ahalmen ematen zizkion Presidenteari. Lehenik eta behin, Konstituzioko 25.artikuluak Presidenteari *Reichstag*-a disolbatzeko ahalmena ematen zion. Hala ere, gaitasun hau zertxobait mugatzeko helburuz, xedapen berdinean ezartzen zen arrazoi berdin batengatik behin bakarrik erabil zezakeela *Reichstag*-a disolbatzeko aukera. Muga hau ezartzen zen, Presidenteak parlamentua disolbatzeko aukera hau *Reichstag*-aren eta presidentearen arteko talka herriak ebazteko tresna bat zelako eta, beraz, behin erabilia nahikoa zelako. Errealitatean, muga hau ezarri arren parlamentuaren disoluzioa salbuespenezko gertaera izatetik askotan errepikatzen zen praktika izatera igaro zen. Bestalde, parlamentua disolbatzeko

⁷⁸ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales). 77.

⁷⁹ Mortati, C.; Jellinek, W.; Buhler, O.; Rovira Armengol José; Alemania. La Constitución De Weimar : La Constitución Alemana De 11 De Agosto De 1919; Clásicos Del Pensamiento. Tercer Milenio, 112; Tecnos: Madrid, 2019.

⁸⁰ Hirschmann, P. Centenario De La Constitución De Weimar. Anales De La Facultad De Ciencias Jurídicas Y Sociales De La Universidad Nacional De La Plata 2020.

⁸¹ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales). 77.

praktika ez zen *Reichstag*-aren eta presidentearen arteko talkak konpontzeko erabili, aitzitik parlamentuan gobernua eratzeko gehiengoak lortu ezin zirenean parlamentu berri bat erabiltzeko erabili zen kasu gehienetan.⁸²

Bigarrenik, Presidenteak hala erabakiz gero, *Reichstag*-ak onartutako legeak erreferendum bidez onartu behar ziren (73.art), hau da, Presidenteak erabaki zezakeen lege bat indarrean sartu ahal izateko alde zuzenetik erreferendum bidez onartu behar izatea. Gainera, *Reichsrat*-ak Parlamentuaren lege bati betoa ezarri gero, presidenteak lege hori erreferendum bidez onartzea erabaki zezaken. (74.art)

Azkenik, konstituzioko 48.artikuluak, eskumen zabalak ematen zizkion Presidenteari salbuespen egoeretan. Alde batetik, 48.artikuluko lehenengo atalak Alemaniako estatu batek konstituzioak edo legeak agindutakoa betetzen ez bazuen, Presidenteari agindu hori betearazteko eskumena ematen zion, baita horretarako indar armatuak erabiltzeko ere. Bestalde, 48.artikuluko bigarren atalak bereziki garrantzitsua zen ahalmen bat ematen zion. Xedapen horren arabera, Inperioko ordena publikoa eta segurtasuna arriskuan egonez gero edo aldatzen baziren, Presidenteak ordena eta segurtasuna berrezartzeko beharrezkoak ziren neurriak har zitzakeen, baita beharrezkoa zen kasuetan indar armatuen laguntza erabili. Gainera, ordena berrezartzeko helburuz denbora jakin batez zenbait funtsezko eskubide guztiz edo partzialki esekitzeko eskumena ematen zion.

Presidenteak neurri hauek hartu ondoren, *Reichstag*-ari neurri hauen berri eman behar zion eta *Reichstag*-ak neurri hauek indargabetzea eskatu zezakeen. Hala ere, ordena publikoa eta segurtasuna zalantzan zeuden edo ez aztertzea Presidentearen eskumena zen. Presidenteak salbuespen egoeretan hartzen zituen neurrien gain parlamentuak egiten zuen kontrola neurriak hartu ondoren izateak, hots, osteko neurri zuzentzaile izateak, eraginkortasuna kentzen zion parlamentuaren kontrol horri. Praktikan, parlamentuak oso gutxitan erabaki zuen Presidentearen neurriak atzera botatzea eta 1930ean neurriak indargabetzea erabaki zuenean Hindenburg Presidenteak *Reichstag*-a desegin zuen Konstituzioko 25.artikuluan oinarrituta.⁸³

Carl Schmitt-ek salbuespen egoeretan Presidenteak neurriak hartzeko zuen eskumen hau Weimarko Konstituzioak ezartzen zituen hiru ezohiko legegileen artean kokatzen zuen. Carl Schmitt-en arabera hiru ezohiko legegile horietatik lehenengoa estatu parlamentario legegilea ezartzen zuen Konstituzioaren lehen zatirekiko

⁸² Schmitt, C.; Schmitt, C. Sobre El Parlamentarismo; Clásicos Del Pensamiento, 78; Tecnos: Madrid, 1990.

⁸³ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales)., p.77.

aurkakoa zen bigarren konstituzio bat egotearen ondorio zen. Bigarren konstituzio hori, “alemaniarren oinarrizko eskubide eta obligazioak” izenburupean agertzen zen.⁸⁴ Bigarren konstituzio horretan jasotzen diren baloreak babesteko ezartzen diren garantia juridikoek, 76.artikuluak konstituzioa aldatzeko ezartzen duen gehiengo kualifikatua besteak beste, estatu parlamentario legegilearen oinarria den ohiko legegilearekiko konfiantza apurtzen dute. Modu horretan, gehiengo kalifikatu hori ezartzean legegile berri bat sortzen da: lege gorena (lege konstituzionala) beraz bi herenek osatutako momentuko gehiengoaren ondorio da.⁸⁵

Carl Schmitt-ek Weimarko Konstituzioan identifikatzen zuen bigarren ezohiko legegilea estatu legegilearen legalitatearen aurrean kokatzen zen plebiszituen legitimitatea zen. Izan ere, Konstituzioko 73.1, 73.2, 74.3 eta 76.2. artikuluetan prozedura legegile arrunta erreferendum baten bidez onartu behar izateko aukera jasotzen zen. Gainera, 73.3.artikuluak prozedura legegile parlamentario arruntarekin batera prozedimendu legegile herrikoi independente bat ezartzen zuen. Gauzak honela, herri Parlamentuaren aurrean ezohiko legegile bezala azaltzen da alde batetik, baina, bestetik, Parlamentuaren gainetik ere agertzen zaigu bere subirano izaeratik eratorritzen dena.⁸⁶

Azkenik, lehen aipatu bezala, ezohiko legegile bezala estatu parlamentario legegilearen legea ordeztzen duen estatu administratiboaren neurri edo xedapena dago. Ezohiko legegile hau ez zuen Konstituzioak ezartzen, aitzitik, Alemaniako Presidenteak aurrera eramane zuen praktikaren ondorio izan zen.⁸⁷ Izan ere, 48.artikuluak Presidenteari ematen zizkion salbuespenezko botereen artean legeak egiteko boterea ere aitortu zitzaion, legeak ordeztzen zituen ordenantza juridikoak egiteko eman zitzaion eskumenaren ondorio. Gainera, ezohiko neurri horiek hartzeko ahalmenaren baitan funtsezko zenbait eskubide esekitzeko eskumena ere sartzen zen. Horrek esan nahi zuen, Zuzenbide estatu burgesaren oinarri diren funtsezko eskubideak ez zirela existitzen 48.artikuluak ezartzen zuen ezohiko legegilearentzat.⁸⁸ Carl Schmitt-ek hauteman zuen ezohiko legegile honek, praktikan erabilera handia izan zuen Weimarko Errepublikan. Besteak beste, 1920 eta 1924 urteen artean 100 dekretu presidentzial egin ziren. Gainera, 1930 urtean 5 dekretu presidentzial xedatu ziren, 1931n 44 eta 1932n 60. Dekretu hauen alderdi kuantitatiboaz haratago kualitatiboki eragin handia izan zuten.

⁸⁴ Schmitt, C.; Schmitt, C.; Díaz García José. *Legalidad Y Legitimidad; Iniciación Jurídica*; Aguilar: Madrid, 1971.

⁸⁵ Schmitt, C.; Schmitt, C.; Díaz García José. *Legalidad Y Legitimidad; Iniciación Jurídica*; Aguilar: Madrid, 1971.

⁸⁶ Ibid.

⁸⁷ Ibid.

⁸⁸ Ibid.

Izan ere, eraldaketa konstituzional bat eman zen: botere legegilea presidentearen eskuetara igaro zen.⁸⁹

Carl Schmitt-en ustez hiru ezohiko legegile hauek “*estatu legegile parlamentarioaren legalitatearen sistema logikoa arriskuan jarri zuten*”. Hala ere, “*Hiru ezohiko legegile horiek konstituzioan sartzeak eragiten duen Estatu legegile parlamentarioaren egiturazko printzipioekiko desbideraketak ez dira zehatzak eta Konstituzioan ez daude modu integral batean jasota*”.⁹⁰ Baina, Weimarren alderdi askotako sistema egon zen eta alderdi horiek gehiengoak sortzeko zuten ezintasunak ekarri zuen botere exekutiboak eskumen legegileak egikaritzea, Carl Schmitt-ek *Legalidad y Legitimidad* liburuan azaldu bezala: “*alderdi anitzeko estatu bat ez da totalitario bihurtzen bere indarraren eraginez, bere ahuleziaren eraginez baizik*”.⁹¹

Bestalde, botere judizialak Weimarko Errepublikan izan zuen papera aipatzea garrantzitsua da. Weimarko Errepublika eratu zenean, aurretik zegoen estatuko burokrazia antidemokratikoa ez zen aldatu eta ez zen epailerik bere kargutik kendu, nahiz eta hauek erabat erreakzionarioak izan. Honek, botere judiziala Errepublikarekiko aurkakotasunean egotea eta Konstituzioarekiko atxikipenik ez izatea ekarri zuen eta, beraz, independentziarik ez zuen epaileak zeuden. Ondorioz, zenbait kasutan politikaren judizializazioa gertatu zen, ordenamenduko printzipio orokorren interpretazioak helburu erreakzionarioak lortzeko erabili zirelarik. Gainera, alderdi eskuindarrak eta alderdi Nazionalsozialista babestu zuten zenbait kasutan. Politikaren judizializazio saiakera hau botere politikoaren legitimitate falta batekin loturan ulertu behar da, izan ere, sistemaren porrota Auzitegien jardunaren bitartez justifikatzen saiatzen da.⁹²

Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federaleko boterearen antolaketa guztiz bestelakoa zen. 1918ko konstituzioak Sobietetan oinarritutako boterea ezartzen zuen eta boterearen antolaketa honetan organo ezberdinek parte hartzen zuten eta hauen arteko eskumen banaketa eta harremana konplexua zen. Sobiet hauek zeregin legegilea eta exekutiboa egikaritzen zituzten aldi berean eta langileen kontrolaren menpe zeuden.⁹³ Konstituzioak, ez zuen gobernu forma berri bat eratu, altxamendu

⁸⁹ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de Weimar: historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales). 92.

⁹⁰ Schmitt, C.; Schmitt, C.; Díaz García José. Legalidad Y Legitimidad; Iniciación Jurídica; Aguilar: Madrid, 1971.

⁹¹ Schmitt, C.; Schmitt, C.; Díaz García José. Legalidad Y Legitimidad; Iniciación Jurídica; Aguilar: Madrid, 1971.

⁹² Pérez Gallego, Roberto; Constitución, derecho y poder judicial en la República de Weimar.

⁹³ Naumkin, Y. El Socialismo Y Las Leyes: Constitución, Legislación Y Poder Popular En La Urss; Biblioteca De Filosofía Del Derecho; Ediciones Jurídicas Olejnik: Santiago de Chile, 2021.

iraultzailearen ondoren koordinaziorik gabeko inizatibaren eraginez sortu eta indarrean zeuden formak arautu eta erregistratu zituen.⁹⁴ Konstituzioko lehenengo artikulua ezartzen zuen Sobiet-en errepublika zela eta hauei zegokiela botere zentrala eta botere lokala.

Konstituzioko 24.artikuluaren arabera botere gorena Errusia osoko Kontseiluen Kongresuari zegokion. Kongresu hau urtean bi alditan biltzen zen gutxienez, 26.artikuluak zehaztutakoari jarraiki. Hala ere, ezohiko kongresua deitzeko aukera ere jasotzen zen (27.art). Kongresuaren funtzioak 49.artikulan zehazten ziren. Funtzio horien artean hauek nabarmentzen ziren:

- Konstituzioa onartu, aldatu edo osatzea.
- Barne eta kanpo politikaren gidaritza orokorra ematea.
- Mugak zehaztea, Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federalean kide berriak onartzea edo berau zatitzea.
- Atzerriko potentziekin harremanak izatea eta bake eta gerra adierazpenak egitea.
- Aurrekontuak onartzea.
- Legeak prestatzea eta justizia antolatzea.
- Herriaren Komisarioen Kontseiluko kideak hautatu edo kargugabetzea.
- Amnistia ematea.

Funtzio hauetaz gain, 51.artikuluak bi funtzio eskusibo ezartzen zizkion Kongresuari: Kontseiluen Konstituzioen printzipio orokorrak finkatzea, aldatzea edo osatzea eta Bake akordioak sinatzea.

Kongresuen arteko denbora tartean, botere gorena zuen organoa Komite Zentral Exekutiboa zen (30.art) eta honek betetzen zituen 49.artikulan zehaztutako funtzioak. Hala ere, 51.artikuluak zehazten zituen Kongresuaren eskumen eskusiboak ezin zituen bete. 8.artikuluaren arabera, Komite Zentrala gehienez 200 kidek osatzen zuten eta Errusia osoko Kontseiluen Kongresuaren eskumena zen bertako kideak hautatzea. Honekin lotuta, 29.artikuluak zehazten zuen Komite Zentralak Kongresuaren aurrean erantzuten zuela.

Komite Zentral Exekutiboa Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federalesko botere legegilea, exekutiboa eta ikuskaritza boterea zituen organo gorena zen (31.art).

⁹⁴ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.141.

Botere hauek zehaztapena hurrengo artikuluan egiten zen. 32.artikuluaren arabera, Komite Zentralaren zereginak hauek ziren: *“langileen eta nekazarien Gobernuaren eta herrialdeko Kontseiluen Boterea osatzen duten organo guztien ekintzak zuzentzen ditu; lan legegile eta administratiboak bildu eta koordinatzen ditu; Sobiet-en Konstituzioaren aplikazioa gainbegiratzen du eta Errusia Osoko Kontseiluen Kongresuaren eta Kontseiluen Boterearen organo zentralen erabakiak ikuskatzen ditu”*.

Zeregin hauetaz gain, Komite Zentralak beste zenbait eskumen garrantzitsu zituen: herriaren Komisarioen Kontseiluaren dekretu proiektuak aztertu eta onartzen zituen (33.art), Errusia osoko Kontseiluen Kongresua deitzen zuen (34.art) eta Herriaren Komisarioen Kontseilua osatzen zuen (35.art).

Aipatutako Herriaren Komisarioen Kontseilua Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federaleko gai orokorren gestioez arduratzen zen (37.art). Horretarako, 38.artikuluari jarraiki, bizitza publikoaren bide arrunt eta aktiboa bermatzeko beharrezkoak ziren dekretu, ordenantza, instrukzio eta neurriak hartzen zituen. Bestalde, Konstituzioko 39.artikuluak, Komite Zentralari bere neurri eta xedapenen berri emateko obligazioa ezartzen zion Herriaren Komisarioen Kontseiluari eta ondorengo artikulua, lehen aipatu bezala, Komite Zentralari neurri hauek indargabetzeko eskumena ematen zion.

Komite Zentrala bezala, 46.artikuluaren arabera, Herriaren Komisarioen Kontseiluak Errusia osoko Kontseiluen Kongresuaren aurrean erantzuten zuen. Herriaren Komisarioen Kontseiluetako kideak Komisariotza ezberdinetako buruak ziren(42.art) eta 43.artikuluak 18 komisariotza ezberdin bereizten zituen. Komisario bakoitzaren inguruan Herriaren Komisarioen Kontseiluko kideek onartutako kideez osatutako Kolegioak zeuden (44.art). Komisarioek, beraien Komisariotzari zegokion gaien inguruan erabakiak hartzeko eskumena zuten.

Organo hauen azpian Kontseiluen Kongresuak zeuden eta hauek lau taldetan bereizten ziren: Probintziako Kongresuak, Gobernuako Kongresuak, Barrutiko Kongresuak eta Kantoietako Kongresuak. Lehenengoa, Kontseilu lokaletako ordezkariak edo Gobernuako Kontseiluko ordezkariak osatzen zuten. Gobernuako kongresua Kontseilu lokaletako ordezkariak eta kantoietako ordezkariak osatzen zuten. Azkenik, Barrutiko Kongresua hiriko Kontseiluko ordezkariak eta Kantoietako Kontseilua landako Kontseiluko ordezkariak osatzen zuten. Kontseilu hauek, ordezkatzeko zuten lurraldeko organo gorenak ziren eta Kongresu hauen arteko denbora tartean Kongresuak hautatutako Komite Exekutibo batek betetzen zituen bere funtzioak (56.art).

Antolakuntza guztiaren oinarrian, Errusiako hiri eta herri guztietan Diputatuen Kontseiluak zeuden. Kontseilua hirikoa zen edo herrikoa zen kontuan hartuz, honen kide kopurua aldatu egiten zen. Kontseilu honek, hiri edo herrietako ohiko gaietarako komite exekutibo bat hautatzen zuen (58.art). Kontseilu hauek, Kontseiluen hierarkian gorago zeuden Kontseiluetako ordezkariak hautatzen zituzten eta gainerako organoetako ordezkariak ere azpiko kontseiluak erabakitzen zituzten.

Probintziako Kongresuei, Gobernuko Kongresuei, Barrutiko Kongresuei eta Kantoietako Kongresuei zein Diputatuen Kontseiluei zegozkien funtzioei dagokionez, 61.artikuluak lau funtzio esleitzen zizkien: Kontseiluen boterearen baitako organo gorenek igorritako xedapenak exekutatzea, garapen intelektual eta oparotasun ekonomikorako beharrezkoak ziren neurriak hartzea; tokiko intereseko auziak konpontzea eta kontseiluen ekintzak koordinatzea.

Konstituzioaren helburu nagusia “landa eta hiriko proletalgoaren diktadura ezartzea” zen. Proletalgoaren diktadura eta Konstituzioa bera “burgesia erabat zapaltzeko, gizakiak gizakiarenganako esplotazioa ezabatzeko eta, progresiboki, klaserik eta estatuaren botererik egongo ez zen sozialismoa ezartzeko” tresna bezala justifikatzen ziren. Proletalgoaren diktadura hori Sobiet-etatik abiatuta antolatzen zen. Lehen aipatu bezala, Sobietak boterearen organo konstituzionalak bilakatu aurretik, iraultzan zehar herri organo bezala egon ziren.⁹⁵ Proletalgoaren diktadura terminoak, klase agintaria definitzen zuen, baina boterea egikaritzeko gobernu forma ezaugarritzerakoan neutrala zen. Proletalgoaren diktaduran, lehen aldiz, boterearen egikaritzea herritarren gehiengo osatzen zuen klaseari zegokion.⁹⁶

Proletalgoaren diktaduraren forma hartzen zuen estatuaren helburua, klase zapaltzaileak garaitu eta azpiratzea zen heinean, demokrazia burgesaren “gizaki bat, boto bat” printzipioa baztertzen zen eta sufragioa eskubide bat bezala ikusi beharrean hautesleen funtzio sozial bezala identifikatzen zen. Zentzu horretan, Konstituzioak sufragio eskubidea ukatzen zien: “onura propioa lortzeko hirugarrenak lanean jartzen zituenei”, “norberaren lanaren ondorio ez ziren errenten bidez etekinak lortzen zituztenei”, “negoziatzaile pribatuei” eta “monje eta apaizei”, baita kriminalei eta ergelei.⁹⁷

⁹⁵ Esteban, J. de; Varela, S.; Varela, S.; Universidad Complutense de Madrid Facultad de Derecho Sección de Publicaciones; Esteban, J. de. La Constitución Soviética; Documentos, 1; Universidad Complutense, Facultad de Derecho, Sección de Publicaciones: Madrid, 1978.

⁹⁶ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.168.

⁹⁷ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.160.

Gainera, Konstituzioko 7.artikuluak ezartzen zuen klase zapaltzaileek Kontseiluetako organoetan ez zeukatela inolako tokirik.

Konstituzioan ezartzen zen Sobieten sistemaren batasuna eta Sobieten arteko harremanak zentralismo demokratikoaren printzipioan oinarritzen ziren.⁹⁸ Printzipio hau Konstituzioan modu inplizitu batean jasotzen zen. Printzipio honen oinarria boterearen jatorriaren eta boterearen egikaritzaren arteko diferentzian zegoen. Boterearen iturria Tokiko Sobiet-etan zegoen eta,aldi berean, autoritate gorena Errusia osoko Sobieten Kontseiluari eta Komite Zentralari zegokiola ezartzen zen. Beraz, Sobiet-ak organo gorenen bigilantzia eta kontrolpean zeuden tokiko autogobernurako organo bezala definitzen ziren.⁹⁹

Bestalde, proletalgoaren diktadurapean, estatuko boterearen instituzioak langileek kontrolatutako mekanismoak ziren, helburu komun bat lortzeko. Izan ere, botere legegilearen eta exekutiboaren arteko banaketa parlamentarismoaren ezaugarri berezi bezala identifikatzen zuen eta, aldiz, botere hauen elkarketa sistema sobietikoaren funtsezko lorpena zen. Ondorioz, logikoa da Konstituzioak botere legegilearen eta botere exekutiboaren arteko banaketa ez aitortzea. Beraz, gobernuaren funtzioek bat eta bakarra osatzen zuten, helburu bakar batekin eta autoritate zatiez in eta bakar baten pean.¹⁰⁰

Boterearen zentralizazio honi buruz, Leninek pentsatzen zuen autoritatearen zentralizazioak bere baitan zeramala bere antidotoa. Zeregin legegile eta exekutiboak elkartzeak administratzaile profesionala desagertzea suposatzen zuen, legegile hautetsiarengandik banandua eta bereiztua baita. Elkarketa horren abantaila herritarrek hautatutako ordezkarien gain zeregin legegile eta exekutiboa elkartzea zen, zeina demokrazia zuzenaren funtsa zen.¹⁰¹ Sobietak langileek modu askean hautatutako ordezkariak osatzen zituzten eta edozein momentutan erreboka zitezkeen beraien kargutik, masa zabalek hala erabakiz gero.¹⁰²

⁹⁸ Shafir, M. Los Soviets, Órganos Del Poder Popular; Progreso. El País De Los Soviets; Progreso: Moscú, 1979., p.15.

⁹⁹ Esteban, J. de; Varela, S.; Varela, S.; Universidad Complutense de Madrid Facultad de Derecho Sección de Publicaciones; Esteban, J. de. La Constitución Soviética; Documentos, 1; Universidad Complutense, Facultad de Derecho, Sección de Publicaciones: Madrid, 1978.

¹⁰⁰ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.160.

¹⁰¹ Ibid. 166

¹⁰² Shafir, M. Los Soviets, Órganos Del Poder Popular; Progreso. El País De Los Soviets; Progreso: Moscú, 1979. 11.

Bestalde, Leninen ustez langile eta nekazari masak berain buruarentzat legeak egitearen, beraien erabaki propioak hartzearen eta beraien arazoak administratzearen adierazle ziren Sobietak. Demokrazia zuzenaren irudi idealizatu honek erdigunean botere burokratiko hazkor eta tinko bat estaltzen zuen . Baina auzi honetan ere azken berrespena alderdiari zegokion eta hutsune konstituzionalak osatzeko deitua izan zitekeen.¹⁰³

Hala ere, Sobieten Errepublikaren eta legegintza sobietikoaren esperientziaren lehen urteetan printzipio idealisten eta errealitate gordinaren arteko amildegia garbi adierazi zen. Izan ere, alderdi bakar bateko estatuaren garapenak eta Gerra Zibilaren arrastoak, zeinak Errepublikaren biziraupena zalantzan jarri zuen, Konstituzioa oinarritu zen premisa baikorrak eraitsi zituen eta Konstituzioaren proiektua eratu zuen Komisioaren baitan eman ziren eztabaidak itzalpean gelditzea eragin zuen.¹⁰⁴

Konstituzio onartu aurretik, jadanik, organismo zentral ezberdinen arteko botere orekan aldaketak eman ziren. Konstituzioa onartu ondorengo urteetan, aldaketa horiek areagotuz joan ziren. Errusia Osoko Kontseiluen Kongresua biltzea zaila zenez, geroz eta gutxiagotan biltzen ziren eta, beraz, ezinezkoa zen honek gobernatzea. Gainera, Kongresuaren ia funtzio guztiak Komite Exekutibo Zentralak gauzatu zitzaizkenez, boterea organo honek bereganatu zuen arazorik gabe. Maila baxuagoko organoetan era gauza bera gertatu zen, erabaki garrantzitsuak hartzeko gaitasuna Komite Zentralen esku geratuz joan zen. Gainera, Komite Zentral Exekutiboaren bilerak ere murriztuz joan ziren, organo honetako kideak areagotuz joan ziren heinean eta Herriaren Komisarioen Kontseilua botereak bereganatuz joan zen eta organo hau izan zen egitatez gobernu funtzioa egikaritu zuena. Izan ere, Gerra Zibilaren testuinguruan organo honek hartzen zituen erabaki exekutibo eta legegileak premia larrikoak ziren eta, beraz, ez zuten Komite Zentral exekutiboaren onarpenik behar.¹⁰⁵

Bestalde, Alderdi Boltxebikearen eta estatuko instituzioen eboluzioek bat egin zuten eta bien arteko bereizketa egitea ere zaila bihurtu zen. Izan ere, Alderdi Komunistak eta Estatu Sobietarrak eta bere instituzioek izan behar zuten harremana ez zen iraultza aurretik zehaztu eta gradualki ezartzen joan zen krisiak eragindako mehatxu eta tentsiopean. Alderdiko Kongresuak, pixkanaka politika publikoko auziei garrantzia

¹⁰³ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /., p.166.

¹⁰⁴ Ibid., p.167.

¹⁰⁵ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /.

handiagoa eman zien. Gainera, alderdiko kideak modu antolatu batean eta administrazioko atal guztietan txertatzea sustatu zen, administrazioko kargu garrantzitsuak alderdiak egindako izendapenekin betetzen zirelarik. Modu horretan, alderdiak gobernuko politika kontrolatzea lortzen zuen. Ondorioz, Alderdi Komunista Estatu Sobietarreko aktibitate publikoa gidatzen zuen boterea bilakatu zen eta bere erabakiek betebeharrak izatera zuten izatera publikoko antolakunde guztientzat. Momentu horretatik Aurrera, boterea lortzeko borroka oro alderdiaren baitan eman zen.¹⁰⁶

2.2. Funtsezko eskubideak

Weimarko Konstituzioko bigarren zatiak “Alemaniarren eskubide eta betebeharrak” jasotzen zituen modu luze batean. Alemaniarrei aitortutako eskubide eta betebeharrak hauek, bost atal ezberdinetan jasotzen zituen konstituzioak: pertsonari banako bezala zegozkionak, bizitza sozialari lotutakoak, erlijioei eta konfesio erlijioei lotutakoak, hezkuntzari eta irakaskuntzari lotutakoak eta bizitza ekonomikoari lotutakoak.

Lehenengo atalean, lehenik eta behin, legearen aurrean Alemaniar guztien berdintasuna ezartzen zen eta gizonezko eta emakumezkoen eskubide eta obligazio berdinak aitortzen zitzaizkien (109.artikuluak). Ondoren, zenbait eskubide zibil aldarrikatzen ziren, hala nola: zirkulatzeko askatasuna (111.art), etxebizitzaren bortxaezintasuna (115.art), legearen atzeraeraginkortasun eza (116.art), komunikazioen sekretutasuna (117.art) eta adierazpen askatasuna (118.art).

Bigarren atalari dagokionez, ezkontzaren babesa (119.art) eta gazterien babesa (122.art) ezartzen ziren besteak beste. Bestalde, biltzeko eskubidea jasotzen zen 123.artikuluak, bilera hauek baketsuak izan behar zirela zehazten zen eta bilerak kanpoaldean ez baziren ez zuten baimena eskatzeko betebeharrak ezartzen. Honekin lotuta, ondorengo artikulua asoziatzeko askatasuna jasotzen zuen. Azkenik, hiritarrek administrazioarekiko zituzten eskubide eta betebeharrak eta funtzionarioen eskubideak arautzen ziren.

Hirugarren atalean, 135.artikuluak Alemanian sinesmen eta kontzientzia askatasuna zegoela ezartzen zuen. Gainera, atal honetan norberak bere sinesmenak publikoki plazaratzeko betebeharrak ez zegoela zehazten zen (136.art) eta erlijio ofizialik ez zegoela aldarrikatzen zen. Azkenik, konfesio erlijioa hautatzeko eskubidea aitortzen zen (137.art).

¹⁰⁶ Ibid.

Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren atalean, hezkuntza publikoa izango zela zehazten zen (143.art) eta irakaskuntzaren gaineko ikuskapena Estatuari esleitzen zitzaion (144.art). Eskola pribatuak sortu ahal izateko Estatuaren baimena beharrezkoa zen (147.art). Bestalde, 145.artikuluak hezkuntzaren derrigortasuna ezartzen zuen.

Azkenik, bosgarren atalean Alemaniarren eskubide sozialak jasotzen ziren. Atal honetan, bizitza ekonomikoarekin lotutako hainbat eskubide eta obligazio jasotzen ziren. Atal honen, norabidea hiru printzipio nagusi hauek zehazten zuten:

1. Sozialki garrantzitsua zen gizabanakoen jarduera guztiak interes orokorraren menpe jarri ziren.
2. Berdintasunaren ikuskera formala, ikuskera esentzialago batengatik ordeztu zen.
3. Estatuaren eta zenbait organo politikoren esku hartzea produkzio prozesuetan eta aberastasunaren banaketa justuago bat bilatzea.¹⁰⁷

Lehenengo printzipioarekin lotuta, 153.artikuluak jabetzaren mugak eta bere edukia legez ezarriko zirela xedatzen zuen eta, gainera, jabetzaren erabilera interes orokorraren mesederako erabili behar zela. Bestalde, 155.artikuluak lurra landu eta ustiatzea jabeek komunitatearekiko zuten obligazioa zela ezartzen zuen.

Bigarren printzipioari dagokionez, Konstituzioan berdintasunari ematen zitzaion adiera legearekiko berdintasunetik haratago zihoan, izan ere, denak tratatu berdina jaso ahal izateko baldintza materialak bermatzen ahalegintzen zen. Horretarako, Estatuak esku hartze batzuk egitea beharrezkoa zen.¹⁰⁸ Konstituzioa berdintasun materiala bilatzen saiatu izanaren adierazgarri da 155.artikuluak, alemaniarren etxebizitzarako eskubidea eta etxeko beharrak asetzeko beharrezko ondare ekonomikoa izatea aldarrikatzen zuen.

Hirugarren printzipioaren kasuan, botere publikoek aktibitate ekonomikoan esku hartzea bilatzen zen, bere eraginkortasuna areagotu eta aberastasunaren banaketa justuago bat egiteko. Estatuaren esku hartze hauek sistema ekonomikoaren aldaketa garai batekin bat egin zuten: industriaren dimentsioaren handitzea, monopolio eta oligopolioen sorrera, merkatu nazional itxien sorrera, langile klasearen eskaera... Egoera horretan hiru eremutan esku hartu zen: industria korporazio handien boterea

¹⁰⁷ Mortati, C.; Jellinek, W.; Buhler, O.; Rovira Armengol José; Alemania. La Constitución De Weimar: La Constitución Alemana De 11 De Agosto De 1919; Clásicos Del Pensamiento. Tercer Milenio, 112; Tecnos: Madrid, 2019.

¹⁰⁸ Ibid.

mugatzea, planifikazioaren bidez produkzioa bultzatzea eta aberastasuna banatu eta produkzioaren gestioan langileen parte hartzea areagotzea.¹⁰⁹

Industria handiaren boterea kontrolatzeko erabilitako neurri bat 156.artikuluak ezarri zuen. Artikulu horrek, enpresak nazionalizatzeko aukera jasotzen zuen, estatuak enpresen administrazioan esku hartzeko aukera ematen zuen eta enpresen elkarketak inposatzeko eskumena ematen zion. Bestalde, produkzioaren gestioan langileen parte hartzea bermatzeko 165.artikuluak langileen kontseiluak eta ugazaben kontseiluak eratzen zituen eta baita bi kontseilu hauetako ordezkariak barnebiltzen zituen kontseilu ekonomikoa ere. Azkenik, langileari lan esparruan zenbait eskubide aitortzen zitzaizkion: lan zuzenbidearen ezarpena (157.art), laneko baldintzak hobetzeko asoziazio askatasuna (159.art), kargu publikoetan jarduteko denbora librerako eskubidea (160.art), aseguru sistema estatal baten ezarpena (161.art), etab.

Langile mugimenduak, beraz, borrokaren bitartez, eskubide politiko eta sozial zabalak aitortzen zituen estatu demokratiko eta parlamentario bat lortu zuen. Modu horretan, ordura arte baztertuak egon ziren hainbat sektore sozialek ikuspuntu juridiko batetik eskubide berdintasuna eskuratu zuten eta berdintasun erreal baten alde borrokatzeko aukera ematen zien. Izan ere, praktikan oraindik ez zen lortu berdintasun bat egotea. Hala ere, beste alderdian, klase zapaltzaileek beraien boterearen oinarri sozialak mantentzea lortu zuten, hau da, lursail handien, fabriken eta bankuen jabetza. Gainera, botere politikoaren bitarteko garrantzitsu batzuk beraien eskuetan egoten jarraitu zuten; armadak, justiziak eta estatuko burokraziak. Boterearen posizio hauetatik, 1918ko testuinguruak eraginda, gogo txarrez emandako kontzesioak indargabetzen ahalegindu ziren. Horregatik, iraultzan lortutako lorpen sozial eta politikoak ezin ziren egonkortutzat jo.¹¹⁰

Ondorioz, esan liteke, Alemanian ahulduta zegoen klase burgesak boterean mantentzea lortu zuela, langile mugimenduari kontzesioak egiteko prest agertu zelako. Hala ere, kapitalismoa izan zen borroka horretan garaile iren zena.¹¹¹

Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federalari dagokionez, 1918ko konstituzioak bere bigarren zatian aitortzen zituen funtsezko eskubideak, "Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federaleko konstituzioaren funtsezko oinarriak"

¹⁰⁹ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de weimar : historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales). 98.

¹¹⁰ Kühnl Reinhard; Kühnl Reinhard. La República De Weimar: Establecimiento, Estructuras Y Destrucción De Una Democracia; Estudios Universitarios, 47; Edicions Alfons El Magnànim, Institució Valenciana D'Estudis I Investigació: Valencia, España, 1991.

¹¹¹ Ibid.

izenburupean. Atal horretan, besteak beste eskubide hauek aldarrikatzen ziren: kontzientzia askatasuna (13.art), adierazpen askatasuna (14.art), biltzeko eta asoziatzeko askatasuna (15. eta 16.art) eta herritarren berdintasuna legearen aurrean (22.art). Hala ere, eskubide hauek modu partikular batean ulertzen ziren eta atal horretako 9.artikuuarekin lotuta interpretatzen ziren. Artikulu horren arabera, Konstituzioaren helburua Proletalgoaren diktadura ezartzea zen, burgesia erabat zapaldu eta sozialismoa ezartzeko. Proletalgoaren diktadura estatu forma bereizi bat zen neurrian, “makila mota berezi bat zen” Leninen hitzetan, zeinaren helburua Klase zapaltzaileak garaitu eta zapaltzea zen. Ondorioz, Konstituzioak estatu honi emandako botereak mugagabeak, banaezinak eta erabatekoak ziren.¹¹²

Horregatik, Konstituzioko 23.artikuluak eskubide hauek iraultzaren aurka erabiltzen zituzten pertsoneri eskubide hauek ukatzen zizkien. Izan ere, proletalgoaren diktaduraren helburua ez zen burgesiako kideen eta langile klasearen arteko berdintasuna ezartzea, baizik eta burgesia bera desagerraraztea. Banakoen arteko berdintasuna klaserik gabeko gizarteetan solik lortu baitaiteke.¹¹³

Bestalde, Sobieten Estatuak hartzen zuen proletalgoaren diktaduraren formak beste ondorio bat zuen, hau da, Konstituzioak ez zituen jasotzen hiritarrak estatuarengandik babesteko eskubide edo berme juridikoak. Izan ere, Marxismoak ez zuen uste gizabanakoen askatasunak estatuak hauetan esku hartu gabe bermatzen zenik.¹¹⁴

Gainera, argitu behar da 1918 Konstituzioa ez zela adierazpen askatasuna, kontzientzia askatasuna, biltzeko askatasuna, manifestatzeko askatasuna edo asoziatzeko askatasuna aldarrikatzera mugatu. Konstituzioak, eskubide hauek Estatuak zituen baliabide materialen bidez bermatu zituen.¹¹⁵ Eskubide hauek bermatzeko baliabide hauek ezarri zituen konstituzioak: kontzientzia askatasuna bermatzeko erlijioa banandu egin zuen hezkuntzatik eta estatutik (13.art); adierazpen askatasuna bermatzeko hedabideek kapitalarekiko zuten menpekotasuna deuseztatu zuen eta hauek langileen eskuetan ipini zituen (14.art); biltzeko askatasuna bermatzeko bilerak egiteko egokitutako lokalak langileriaren esku utzi zituen (15.art); asoziatzeko askatasuna bermatzeko beharrezko laguntza eta materiala jarri zuen langileriaren esku

¹¹² Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /. 158.

¹¹³ Ibid., p.159.

¹¹⁴ Ibid., p.159.

¹¹⁵ Naumkin, Y. El Socialismo Y Las Leyes : Constitución, Legislación Y Poder Popular En La Urss; Biblioteca De Filosofía Del Derecho; Ediciones Jurídicas Olejnik: Santiago de Chile, 2021.

(16.art) eta jakintzara sarbidea bermatzeko hezkuntza osatu, unibertsal eta doakoa ezartzen zen. Modu horretan, langileen askatasuna ez zen estatuaren jardunaren aurrean babestu behar, aitzitik, estatuaren jardunak bermatzen zuen askatasuna.¹¹⁶

2.3. Lurraldearen antolaketa

Lurraldearen antolaketari dagokionez, Alemania osatzen zuten herrialde ezberdinen eta *Reich*-aren arteko harremanak bideratzeko eta lurralde hauetako botereak antolatzeko, Weimarko Errepublikak estatu federal bezala eratu zen. Antolaketa federalista honen baitan, lehenik eta behin, 1918ko konstituzioko 17.artikuluak Alemaniako herrialdek konstituzio propio bat izan behar zutela jasotzen zuen. Hala ere, konstituzio hauek *Reich*-eko konstituzioaren menpe zeuden, nahiz eta gaitasun legegile administratzaile eta judiziala zuten azpi ordenamendu juridikoak sortzea ahalbideratzen zuen.¹¹⁷

Herrialdeetako konstituzio hauek, *Reich*-ekoaren menpe zeudenaren adierazgarri da Weimarko Konstituzioko 17.artikuluak konstituzio hauei ezartzen zizkien zenbait mugapen. Hasteko, herrialdeetako konstituzioek errepublikaren estatu forma izan behar zutela ezartzen zen. Bestalde, herritarren ordezkariak sufragio unibertsal bidez hautatuak izan behar zirela ezartzen zuen eta sufragioa ordezkariak eta proportzionaltasun printzipioen baitan egingo zela. Gainera, herrialdeetako gobernuek herritarren ordezkarien babesa izan behar zutela xedatzen zen, hau da, herrialdeetako parlamentuak herrialdeetako gobernuek babestu behar zituztela. 17.artikulu honen bitartez, Alemaniako estatuetan monarkia berrezartzea ekidin zen eta, baita, estatu hauetan Kontseiluen bitartez funtzionatuko zuen errepublikak ezartzea ere.¹¹⁸

Weimarko lurralde antolaketaren ezaugarri nagusienetako bat Alemaniako herrialde hauen botere legegileari ezarritako muga nabarmenak izan ziren. Izan ere, alde batetik, Konstituzioko 6.artikuluak *Reich*-aren eskumen eskusiboak areagotu zituen, 1871ko konstituzioarekin alderatuz eta, beste aldetik, 7. eta 8.artikuluek *Reich*-aren eskumen legegile arruntak ere areagotu egin zituzten. Halaber, eskumen arrunt hauek eskumen eskusibo bihurtzeko, 13.artikuluaren arabera Inperioko zuzenbideak

¹¹⁶ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad]; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /. 158.

¹¹⁷ Casquete, J. and Tajadura, J. (2020) La constitución de weimar : historia, política y derecho. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales (Estudios constitucionales). 98.

¹¹⁸ Ibid., p.98.

lehenetasuna baitzuen herrialdeetako zuzenbidearekiko. Bestalde, Konstituzioko 15.artikuluak *Reich*-ari gidalerro orokorrak eta printzipio orokorrak zehazteko eskumena ematen zion. Beraz, esan liteke Weimarko Konstituzioak herrialdeen eskumen esklusiboak ezabatzeko balio izan zuela.¹¹⁹

Weimarko Errepublikako lurralde antolaketan, aipatzekoa da Inperioko legegintzan eta administrazioan herrialdeen ordezkari funtzioa zuen organoa, hots, *Reichsrat*-a. Alemaniako herrialdeak organo honetan herrialdeko gobernuo kideen ordezkariaren bidez parte hartzen zuten (63.art). *Reichsrat*-ak prozesu legegilean betetzen zituen funtzioei dagokionez, bi bereziten dira: alde batetik, gobernuak *Reichstag*-aren aurrean lege proposamen bat egin aurretik *Reichsrat*-aren onespena behar zuen (69.art) eta, beste aldetik, *Reichsrat*-ak *Reichstag*-ak xedatutako legeen aurrean beto eskubidea erabil zezakeen (74.art). Hala ere, beto eskubide hau mugatua zen, *Reichstag*-aren bi hereneko gehiengo kualifikatu baten bidez gainditu ahal baitzitekeen.

Sobietar Batasunaren kasuan, Errusiako 1918ko konstituzioak ezartzen zuen Errusiako Kontseiluen Errepublika nazioen elkartzeko askea oinarri hartuta eratu zela eta elkartzeko honek Sobieten Errepublika nazionalen Federazioa osatzen zuela (2.art). Bestalde, Konstituzioko 8.artikuluak adierazten zuen *III. Kontseiluen Kongresuak* Errusiako Kontseiluen Errepublikaren Federazioaren printzipio orokorrak xedatzen zela eta gobernu federalean eta Kontseiluen beste instituzio federalean parte hartzeko printzipio eta funtsezko oinarriak zehazteko zeregina nazio bakoitzeko langile eta nekazariei zegokiela. Beraz, Nazio ezberdinek osatutako federazioa aldarrikatzen zen, baina federazio horren oinarriak eta printzipioak arautu gabe gelditu ziren, Konstituzioko gainerako artikuluetan ez baitzen aipatu ere egiten.

Alderdi Boltxebikeak federalismoarekiko zuen ikuspegia Iraultza eman zen momentuan aldatu zen eta federalismoa zentzutan ulertzen zuten. Alde batetik, Sobieten sistema organo lokalen borondatezko antolaketan oinarritzen zen, zeinak autoritate zentrala eratzen zuten. Modu horretan, Parisko Komunaren aurrekaria jarraitzen zuten. Beste aldetik, federalismoa Zar-aren inperioren menpe zeuden nazioen interesak

¹¹⁹ Mortati, C.; Jellinek, W.; Buhler, O.; Rovira Armengol José; Alemania. La Constitución De Weimar : La Constitución Alemana De 11 De Agosto De 1919; Clásicos Del Pensamiento. Tercer Milenio, 112; Tecnos: Madrid, 2019.

asetzeko eta hauek sobieten esparruan mantentzeko erabilgarria zen kontzeptu politiko bat zen.¹²⁰

Sobieten federazioak ez zuen muga geografikoengatik edo halabehar historikoengatik bereiztutako lurralde ezberdinen arteko batasun bat adierazten Suitzako eta Ameriketako federazioen kasuan bezala. Aitzitik, historikoki anitzak ziren eta bizimodu eta osaera nazional ezberdina zuten lurraldeen batasuna zen. Bestalde, federazio hau Errusian nazio auziak zituen berezitasunak kontuan hartuta beharrezkoa zen etapa bat bezala ulertzen zen, ondoren unitarismo sozialista ezartzeko.¹²¹

Hala ere, lehen aipatu bezala Konstituzioan federalismoaren inguruan jasotakoa garatu gabe zegoen. Alde batetik, Gerra Zibilaren testuinguruan, Konstituzioan jasotakoak behin behineko izaera zuen. Bestalde, gobernu federala osatuko zuten errepublika eta eskualdeak eratu gabe zeuden eta, beraz, ezinezkoa zen zehaztugabeko edo existitzen ez ziren unitateen arteko federazio batentzat Konstituzio bat egitea. Ondorioz, 1918an hedadura zehaztugabea zuen Errusiar errepublika sortu zen.¹²² Beraz, esan liteke, federalismoa etorkizunean zehazten joango zen eta aukera ezberdinei irekita zegoen printzipio konstituzional bat baino ez zela izan.¹²³

Aintzinako Zar-aren inperioaren lurraldean zeuden zenbait lurraldetan Errepublika Sobietarrak eratzen joan ziren heinean, hauen eta Errusiako Kontseiluen Errepublika Sozialista Federalaren artean administrazio komunak eratzen joan ziren. Harreman hauen eraginez, 1922ko abenduan Errusiako, Ukrainako, Bielorrusiako eta Transkaukasoko errepublikek sinatutako akordio baten bitartez SESB eratu zuten.¹²⁴

Sobietar Batasuneko 1924ko konstituzioan SESB hiru elementu ezberdinek eratutako Estatu federal bat bezala definitzen zen: Errepublika federalak, errepublika autonomoak eta eskualde autonomoak. Konstituzio honek, Errusiako errepublikako organoek federazio mailara igorri zituen.¹²⁵ Konstituzioko 13.artikuluak ezartzen zuen Komite Exekutibo Zentrala bi ganberek osatzen zutela: Batasuneko Sobietak eta Nazionalitateen Sobietak. Azken hau errepublika federaletako eta errepublika

¹²⁰ Carr, E. H.; Ortega, S. Historia De La Rusia Soviética, [2a. ed. en Alianza universidad].; Alianza Universidad, 15; Alianza: Madrid, 1973; Vol. [i], 1, La Revolución Bolchevique (1917-1923). La Conquista Y Organización Del Poder /. 155.

¹²¹ Ibid., p.156.

¹²² Ibid., p.157.

¹²³ Esteban, J. de; Varela, S.; Varela, S.; Universidad Complutense de Madrid Facultad de Derecho Sección de Publicaciones; Esteban, J. de. La Constitución Soviética; Documentos, 1; Universidad Complutense, Facultad de Derecho, Sección de Publicaciones: Madrid, 1978.

¹²⁴ Ibid.

¹²⁵ Ibid.

autonomoetako ordezkariak osatzen zuten (15.art). Bi ganberek eskubide berdinak zituzten, lege proiektuak aurrera ateratzeko bi ganberek onartu behar zituzten (22.art).

Bestalde, Konstituzioko lehenengo artikulua SESBen eskumen eskusiboak ziren zereginak zerrendatzen zituen. Bestak beste: gerrarekin lotutako gaiak, mugekin eta bakearekin lotutakoak, indar armatuen antolaketa, kanpo merkataritza, plan ekonomiko bateratuak ezartzea, aurrekontu bakarra onartzea, garraioa eta komunikazioak, etab. Errepublika federalen subiranotasunari dagokionez, 3.artikuluak zehazten zuen, errepublika hauen subiranotasunaren muga bakarrak konstituzioak ezarritakoak zirela.

Laburbilduz, 1924ko Konstituzioak errepublika federaletako organo goren eta SESBeko organo goren arteko harremanak sistematizatu eta ordenatu zituen. Gainera, SESBeko legeen eta Errepublika federaletakoen artean egon zitezkeen ezberdintasunak konpontzeko bideak zehaztu zituen, baita organo administratiboen arteko gatazkak konpontzeko ere. Zentzu horretan, SESBeko Auzitegi Gorenak eskumen berezi batzuk zituen.¹²⁶

3. Ondorioak

Lehenik eta behin, konstituzioak gizarteko klaseen arteko botere harremanen ondorio direla esango nuke, konstituzioaren nolakotasuna eta honen edukia boterean dagoen klasearen interes eta beharrek determinatzen dutela neurri handi batean. Weimarko Konstituzioa eta Errusiako 1918ko konstituzioa egitate horren adierazgarri dira. Errusiako konstituzioaren kasuan, konstituzioa proletalgoak boterea hartu ondoren egin zen. Ondorioz, proletalgoak, 1918ko konstituzioaren bidez, bere zapaldu egoera gaindituko zuen eta bere interesak babesteko zituen estatu sozialista egituratzea bilatu zuen. Horregatik, estatua langile boterearen adierazpen izan ziren Sobieten arabera antolatu zen, hauek langileek eratutako antolakuntza formak baitziren eta estatu burgeseko organoekiko aurkakotasunean garatu baitziren. Bestalde, konstituzioak eskubide eta obligazioak klase jabetunei ukatu egiten zizkien, hauek, klase zapaltzaileak menperatu eta sozialismoa eraikitzeko bitarteko moduan ulertzen baitzituen. Azkenik, lurraldearen antolaketari dagokionez, estatu federalaren alde agin

¹²⁶ Naumkin, Y. El Socialismo Y Las Leyes: Constitución, Legislación Y Poder Popular En La Urss; Biblioteca De Filosofía Del Derecho; Ediciones Jurídicas Olejnik: Santiago de Chile, 2021.

zuten, Tsarraren inperioko aintzinako lurraldeak Errusiaren inguruan mantentzeko eta nazio auziari irtenbidea emateko modu aproposena zelakoa.

Weimarko Errepublikari dagokionez, nahiz eta langileriaren iraultza saiakera eman zen, burgesiak boterean mantentzea eta botere organoetan erabakitzeke gaitasuna izatea lortu zuen. Hala ere, haserre eta antolatuta zegoen langileria baten aurrean eta Errusian emandako langileriaren botere hartzea eta Sobieten antolamendua Alemaniara hedatzearen mehatxuak, klase burgesak mehatxu hauek kontuan hartu behar izatea eragin zuen. Gainera, Versailleseko Tratatuaren ondoren, potentzia nagusien onespina lortu eta hauen esku hartzea ekiditeko, beharrezkoa zen Alemania itxura demokratiko baten baitan egituratzea. Beraz, momentu hartan langileriak burgesiaren aurrean zuen indarrak eta potentzia nagusien mehatxuak Weimarko Errepublika demokrazia parlamentario baten baitan eratzea ekarri zuen. Gainera, konstituzioak Alemaniako herritarrei eskubide eta askatasun zabalak aitortu zizkien. Modu horretan, langileriaren haserrealdia baretzea eta iraultzaren arriskua apaltzea lortu zen. Beraz, ikus dezakegu, nahiz eta burgesiak botere egituretan mantentzea lortu zuen, langileriak zuen indarrak burgesia kontzesio batzuk egitera behartu zuen.

Bigarren ondorio bezala, konstituzioak errealitatean aplikatuak izateko dituzten zailtasunak azaltzeko bi arrazoi aipatuko nituzke. Alde batetik, boterea duenak, konstituzioaren interpretazio interesatuak eginez, konstituzioaren helburuetatik urrundu eta bere interesen menpeko interpretazioak egiteko duen aukera. Beste aldetik, Konstituzioak sortu diren testuinguruarekin erabat lotuta ez dagoenean, gizartean ematen diren aldaketak barne hartzeko eta konstituzioa errealitatean ezartzeko zailtasunak izaten dira.

Lehenengo arrazoa argi ikusten da Weimarko Errepublikan botere exekutiboaren garrantzi areagotzean eta parlamentuaren zentralitatearen galeran. Izan ere, nahiz eta konstituzioak gobernu eta estatu parlamentarioaren alde egin, alderdi anitzek osatutako parlamentuak gehiengoak lortzeko zuen zailtasunaren aurrean, botere exekutiboak garrantzia irabazi zuen. Botere exekutibo horren gailentzea emateko Konstituzioko 48.artikuluaren interpretazioa zabaldu zen. Interpretazio horren bidez, Presidenteak salbuespenezko neurriak har zitzakeen testuinguruak zabaldu egin ziren eta Presidenteari botere legegileak aitortu zitzaizkion, botere banaketaren printzipioa apurtuz.

Bigarren arrazoiari dagokionez, Konstituzioak errealitate soziala eta bertako gatazkak guztiz kontuan hartu gabe sortzen badira, konstituzioan ezarritakoa errealitate bihurtzea ezinezko bilakatzen da. Bai 1918ko Errusiako Konstituzio eta bai Weimarko

Konstituzioa horren adierazle dira. Errusiaren kasuan, alderdi Boltxebikeak testuinguru nahasi batekin topo egin zuen, Errusiako ekonomia hondoa jota zegoen eta Gerra Zibila piztu zen hilabete gutxiren buruan. Konstituzioak, testuinguru hau erabat kontuan hartu gabe helburu handiak jaso zituen, baina ondoren errealitatean neurri azkar eta eraginkorrak behar ziren. Ondorioz, Errusia Osoko Kontseiluaren Kongresuaren aurrean Komite Exekutibo Zentralak garrantzia irabazi zuen eta, are gehiago, Herriaren Komisarioen Kontseilua izan zen estatuko organo nagusia, bera baitzen testuinguru horretan erabakiak modu azkarrean hartzeko modu egokiena. Modu horretan, ordezkari handieneko organoen aurrean agintari kide gutxik osatutako organoek lortu zuten nagusitasuna. Bestalde, Konstituzioak aldarrikatzen zituen helburuak ezin izan ziren gauzatu Errusiako testuinguruak eta testuinguru internazionalak baldintzatuta.

Weimarko Errepublikari dagokionez, herritarren artean ez zen egon Errepublikarekiko atxikipenik eta, gainera, atxikipen falta hau areagotuz joan zen denborak aurrera egin hala. Ondorioz, herritarren Errepublikarekiko aurkakotasun bat garatu zen, Weimarreko errepublikaren amaieran eragina izan zuena. Aurkakotasun horren jatorrietako bat Versailleseko Itunaren sinadura Gobernu errepublikarrari egoztearen ondorio izan zen eta alderdi Nazional Sozialistaren hazkundearekin lotuta eman zen. Bestalde, Weimarko errepublika testuinguru nahasian jaio zen, estatu kolpe eta altxamendu saiakera ezberdinak izan zirelarik. Halaber, testuinguru ekonomiko zail bati aurre egin behar izan zion, neurri batean Versailleseko Ituneko zamak eraginda. Horregatik, beharrezkoa izan zen erabakiak hartuko zituen eta neurriak exekutatzeko gaitasuna izango zuen boterea egituratzea. Konstituzioak aurreikusten zuen sistema parlamentarioak ez zuen botere egonkor bat sortzeko gaitasunik izan, alderdi asko zeuden panorama politiko batean gehiengoak ezartzea ezinezkoa izan baitzen. Muga honen aurrean, agintea gauzatzeko modu eraginkorragoa zenez, botere exekutiboaren nagusitasuna eman zen.

Azkenik, aipatzekoa da bai Sobietar Batasunean eta bai Weimarko errepublikan alderdi politikoek izan zuten eragin nabarmena. Bi estatuetan modu ezberdin batean eragin zuten alderdi politikoek, baina estatu hauen bilakaera modu esanguratsu batean baldintzatu zuten. Sobietar Batasunean, Alderdi Boltxebikea ezinbesteko agentea izan zen 1917ko iraultzan eta estatu sobietarraren egituratzean. Baina, gainerako alderdiak ezabatu ziren heinean eta Alderdi Boltxebikeak estatuko aparatuetan zuen esku hartzea areagotu zen heinean, estatuko instituzioen eta alderdiaren arteko elkarketa bat eman zen nolabait. Beraz, alderdiak estatuko organoak ordeztu zituen kasu askotan eta estatu sobietarraren norabidea marraztu zuen. Weimarko Errepublikak, aldiz, alderdi anitzeko sistema baten baitan funtzionatu zuen eta honek parlamentu ahul bat izatea eragin zuen.

Izan ere, ideologia ezberdina zuten alderdi hauek ez zuten gehiengoak lortzeko gaitasunik izan eta parlamentuak jardun jarraitu eta sendo bat izatea oztopatu zuen. Alderdiek gehiengoak osatu eta koalizioak eratzeko izan zituzten zailtasunek Weimarko norabidean eragina izan zuten, botere exekutiboa indartu eta boterea presidentearen eskuetan kontzentratzea eragin baitzuen.

Bi esperientzia historiko hauek jazo ziren testuinguruak gaur egungo testuinguruarekin antzekotasun handiak ditu. Alde batetik, krisi ekonomiko eta ezegonkortasun sozialaren egoera batean gaude eta, bestetik, maila internazionalako borroka beliko baten mehatxua berriro ere mahai gainean jarri da Ukrainako gerraren eraginez. Hala ere, garai hartako testuingurutik bereziten duen faktore garrantzitsu bat dago gaur egungo testuinguruan, hots, langileria antolatu gabe eta otzanduta aurkitzen da. Beraz, funtsezkoa zaigu esperientzia hauek sakon aztertu eta hauen alderdi ezberdinak ikertzea, irakaspenak atera eta gaur egun irakaspen horiek baliatu ditzagun. Esperientzia hauek, alderdi eta xehetasun asko dituzte eta aspektu asko ikertu daitezke oraindik, beraz esperientzia hauen ikerketa ezin da amaitutzat eman.

